

## Txistu kontzertua

40 txistulari elkartu ziren Oñatin

KULTURA, 25



## Felix Reciorenen eskua igartzen hasi da UDAn

5-0 irabazi zion Zestoari eta hiru puntu baliotsu lortu zituen

KIROLA, 15

## Arrasateko Musikal

Big band taldeak Espaloia bete zuen

KULTURA, 25



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko otsailaren 28a • 2. urtea • 47. zenbakia • 0,90 euro

## Bideragarritasun planak hiltegiak aurrera egin dezakeela agertzen du

*Datuok eskutan, Hiltegia Bizirik plataformak kudeaketa proposamen bat landuko duela azaldu du*

Zubillagako hiltegia bideragarria dela frogatzen dute Siadeco enpresak azken lau hilabeteotan landutako azterketaren emaitzek. Oso azterketa sakona da eta datu adierazgarri ugari ematen ditu. Esaterako, Oñatiko hiltegian hiltzen den abereen %38,4 Debagoienekoa dela eta %75,5, berriz, Gipuzkoakoa. Iritsi da Mankomunitateari kudeaketa

proposamen konkretu bat egiteko momentua. Txostenak hiru aukera ematen ditu: hiltegi publikoa, erakunde misto bat eratzea edo pribatizazioa.

Hiltegia Bizirik plataformako kideak lan talde txikietan antolatuko direla jakinarazi dute, denon artean guztiondako egokiena izango den irtenbide bat lantzeko helburuarekin. **2-3**

**EMAITZEN AURKEZPENA**  
Siadecok gaur emango ditu ezagutzera emaitzak Oñatiko Institutuan, 18:30ean

**HIRU AUKERA POSIBLE**  
Itxieraz gain ikerketak hiru kudeaketa formula planteatzen ditu eta hirurak dira jasagarriak

**SOLUZIO BATEN BILA**  
Plataformak proposamen konkretu bat landuko du Mankomunitateari lehenbailehen aurkezteko

**IRITZIAK JASO DIRA**  
Baserritarren eta harakinen iritziak jaso dituzte ze inplikazio mailari eusteko prest diren jakiteko



AITOR LIZARRALDE

## OMENALDI HUNKIGARRIA NATALIO DANTZARIARI

Natalio Maiztegi zenari omenaldia egin zioten atzo bere lagunek. Oñatiko Zubikoa kiroledegia dantzaleku bihurtu zuten Donostia, Zarautz, Bilbo, Gasteiz eta Iruñetik etorritako dantzariak. Saioa hasi aurretik lore sorta eta plaka oroigarria eman zizkieten Natalio zenaren gurasoei bere lagunek eta Oñatiko alkateak. **22-23**

**Hasi berri dira Elgetako saihebidia egiteko lanak** **5**

**39 zuhaitz berri landatu dituzte Arrasateko Monterronen** **6**

**Antzuolako erreka bideratzeko proiektua ikusgai dago udaletxean**

Martxoaren 15era arte egongo da ikusgai, astelehenetik zapatara, eta alegazioak egiteko epea ere egun horretan bukatuko da. Gaur egun plaza azpitik igarotzen da erreka, eta proiektuaren arabera zati bat udaletxe ostetik bideratuko dute. Plazatik igarotzen dena, berriz, agerian lagako dute. **6**

## Bazkideek baietz Brandt erosteari

*Fagor Etxetresna Elektrikoen bazkideen %83k onartu du*

Elco Brandt enpresa frantziarra erosteko proposamena egitea onartu zuten Fagorreko bazkideek. Aldeko botoa eman zuten arren, kontseilu sozialak lau baldintza jarri zizkion zuzendaritzari. Erosketa burutu ostean, Fagor izango da etxetresna elektrikoen Europako 5. enpresa. **8**

# GEUREAN

- Korrika kilometroak erosteko dirua batzeko jaia egin dute Elgetan | 4
- Karmen Irizar preso aitaginarrebaren hileta elizkizunera ekarri zuten | 4



Joserra Vitoria  
musika  
irakaslearekin  
haren tesiaz  
jardun dugu | 7

## HILTEGIAREN BIDERAGARRITASUN TXOSTENAREN EMAITZAK



ARTXIBOA

Debagoienerako Mankomunitateak iazko apirilean eman zuen ezagutzera Zubillagako hiltegia ixteko asmoa. Urte bete beranduago irtenbide baten bila jarraitzen dute langile eta erabiltzaileek.

**HILTEGIAREN ETORKIZUNA AZTERGAI** | SIADecok BIDERAGARRITASUN PLANA EGIN DU. GAUR AURKEZTUKO DITU EMAITZAK 18:30EAN OÑATIN

# Gestio onarekin Zubillagako hiltegiak aurrera egin dezakeela dio Siadecok

*Bideragarritasun txostenean Siadecok hiru kudeaketa formula aztertzen ditu. Asteotan bilerak egingo dira proiektu bat landu eta Mankomunitateari aurkezteko*

Larraitz Zeberio

Hiltegia Bizirik plataformak gaur arratsaldean, astelehena, aurkeztuko du jendaurrean Siadecok bere enkarguz urriaz geroztik Zubillagako hiltegiari buruz egin duen bideragarritasun azterketa. Aurkezpena 18:30ean egingo da Oñatiko institutuan. Baserritar, harakin eta interesa duen guztiendako zabalik dago.

**HILTEGIA BIDERAGARRIA DA**

Txostenak jasotzen du gestio on batekin Zubillagako hiltegiak bere jarduerarekin aurrera egin dezakeela eta etorkizunerako hiru kudeaketa formula planteatzen ditu: zerbitzu publikoa izaten jarraitzea, kudeaketa mistoko formula hautatzea edo ustiapen guztiz pribatua ematea. Gutxienerako baldintza batzuk betez gero, hirurak jotzen ditu

jasangarritzat Hiltegia Bizirik plataformak. Hiltegia ixteak eragingo dituen kalteak ere jasotzen ditu egindako azterketak.

“Oñatiko hiltegiak dituen ondorio ekonomikoez jabetzeko balioko du txosten honek”, adierazten du Hiltegia Bizirik plataformako Mari Karmen Iturbek. “Azterketa hau abiapuntua da, sektoreak bizi duen egoera jasotzen duelako eta hiltegiaren itxierak gizarteari ekar diezazkiokeen kalteak aztertu dituelako”.

Iturberen esanetan, baserritarrek, harakinek, hiltegioko langileek eta udal arduradunek ezagutu beharreko txostena da. Aurrerantzean, etorkizunerako proiektu egokiena adostu eta gauzatu ahal izateko ezinbesteko tresna izango delakoan dago.

**KALTETUEN IRITZIAK**

Hiltegia Bizirik plataformak, beraz, lan fase berri batean murgilduta dabil. Datozen asteotan

**Baserritarren eta harakinen iritziak bildu dira inkesta bidez**

**Txostenak hiru kudeaketa formula planteatzen ditu eta guztiak dira jasagarriak**

eztabaida talde txikiak antolatuko dituzte sektore ezberdinen iritziak jasotzeko.

Siadecok, hala ere, kaltetuen iritziak jaso ditu inkesta bidez. Baserritar eta harakinei galde-tu zaie hiltegiaren itxierak zein eragin izango lukeen euren jardunean eta kudeaketa mistoko formula batean ea diruz laguntzeko prest leudeken. “Iritzi horiek ezagutzea oso garrantzitsua da guretzat”, adierazten du plataformako kideak. “Proposamen bat egin behar diogu Mankomunitateari apiril amaierarako eta badakigu zein irizpide jarraitu”.

Plataformak, bestalde, argi dauka hiltegiaren itxierak inguruko udalerrri asko kaltetuko dituela. “Haiekin ere elkartzeko gara irtenbide bat adosteko”.

MARI KARMEN ITURBE | HILTEGIA BIZIRIK PLATAFORMAKO KIDEA

# “Denontzat egokiena den formula aurkitu behar dugu”

Larraitx Zeberio

**Hiltegia Bizirik plataformak itxaropentsu hartu ditu Siadecoren txostenaren emaitzak. Lan handia dute aurretik baina hiltegiak badu etorkizunik.**

**Zubillagako hiltegia bideragarria da orduan?**

Baldintza batzuk errespetatuz gero planteatutako hiru formulak dira bideragarriak. Baldintza horiek hiltegian hil beharreko gutxieneko ganadu bolumena finkatzen dute.

**Zertarako balioko du azterketa honek?**

Aurrera begira hiltegiarekin proiektu bat planteatu dezakegun edo ez jakiteko. Txostenean aldeko eta kontrako irizpideak aztertu dira. Guztiak baloratu eta apiril amaierarako proposamen bat luzatu nahi diogu Debagoieneko Mankomunitateari. Txostena tresna oso baliotsua izango da, hiltegiaren eragina eta hiltegiaren erabiltzaileak eta kontsumitzaileak zeintzuk eta zenbat diren dakigulako. Jarraipeneko proiektua planteatzeko garaian ezinbesteko informazioa da.

**Zenbat erabiltzaile ditu Zubillagako hiltegiak?**

Baserritarrek 800 bat dira eta harakinak, berriz, 100 bat inguru. Asko Debagoienekoak baina beste asko Debabarrena eta Urola Garaikoak. Gaurtik aurrera deituko ditugun bilerak irekiak dira eta denei zuzendutakoak.

**Zein da orain hurrengo urratsa?**

Gaur arratsalderako bilera deitu dugu. Bertan, Siadeco enpresako arduradun batek egindako azterketaren emaitzak emango ditu eza-gutzera, baita txostena egiterakoan zein irizpide erabili dituzten azaldu ere. Argibideak emango dira, datu adierazgarrienak jarriko dira mahai gainean. Ondoren, talde txikietan, proposamen zehatz bat landuko dugu Mankomunitateari aurkezteko.

**Mankomunitateak badu txostenaren berri?**

Bai, jaso dute eta aztertzen ari dira. Bertan agertzen diren datu asko oso adierazgarriak dira denontzat. Ez onak edo txarrak



LARRAITX ZEBERIO

direlako, baizik erabaki bat hartzeko orduan denontzat delako garrantzitsua horrelako zerbitzu bat edukitzeak zein abantaila eta zein desabantaila dauzkan jakitea. **Zeintzuk dira datu adierazgarrienak orduan?**

**“Hiltegiaren jarraipenerako formula egokiena adostu behar dugu”**

**“Mankomunitateari aurkeztuko diogun proposamena talde txikietan landuko dugu”**

Datuak nork irakurtzen dituen arabera. Niretzat batzuk izan daitezke eta baserritarrendako beste batzuk. Udal agintariendako, berriz, beste batzuk. Datuak beharrezkoak ditugu denontzat komenigarria izango zaigun irtenbide bat aurkitzeko.

**Uste duzu adostasun batera iritsiko zarete?**

Bai. Plataformak beti defendatu du hiltegia zabalik jarraitzeko aukera eta azterketa honek azaltzen du hiltegiak zabalik jarraitu dezakeela. Orain, formula egokiena bilatu behar dugu denontzat. Agian, guri hiltegi publiko bat komeni zaigu baina administrazioari ez. Negoziazio prozesu bat zabaldu beharko dugu.

**Eperik baduzue?**

Apiril amaierarako aurkeztu nahi diogu gure proposamena Mankomunitateari.

## Txostenak hiru kudeaketa formula eta itxiera aztertu ditu

### 1. KUDEAKETA PUBLIKOA |

#### • ABANTAILAK

Baserritarrek eta harakinek ez lukete dirurik jarri behar hiltegiaren jarraipena sostengatzeko. Zerbitzu publiko izaten jarraituko luke. Txostenaren arabera, gainera, urtean 1.700-1.900 tona haragi eginez gero (egun maila horren inguruan dabil hiltegia) auto-finantziazioa %80koa litzateke. Plataformaren esanetan, maila jasagarria.

#### • DESABANTAILAK

Ustiapen guztia administrazioaren esku geldituko litzateke, egungo egoerara berriz bueltatzeko horrek dakarren arriskuarekin. Bestalde, baserritarrek eta harakinek ez lukete hiltegiaren organo erabakitzaileetan inongo ordezkariarik izango.

### 2. KUDEAKETA MISTOA |

#### • ABANTAILAK

Baserritarrek, harakinek eta langileek ordezkari izango lukete hiltegi hartutako erabakietan. Bestalde, zati batean hiltegiak zerbitzu publiko izaten jarraituko luke, publikotasun hori galdu gabe. Auto-finantziazioa %100ekoa litzateke.

#### • DESABANTAILAK

Baserritarrek eta harakinek diru kopuru bat jarri behar lukete proiektu honetan. Ekonomikoki bideragarria izateko lehen urtean 1.900 tona haragi ustiatu beharko litzateke hiltegian eta bigarren urtean, berriz, 2.100 tona. Ahalgin bat egin beharko litzateke, beraz, lan bolumen horiek lortzeko.

### 3. HILTEGIAREN PRIBATIZAZIOA |

#### • ABANTAILAK

Baserritarrek, harakinek eta administrazioak ez lukete dirurik jarri beharko formula hau aukeratuz gero. Auto-finantziazioa %100ekoa izango litzateke.

#### • DESABANTAILAK

Hiltegiaren ustiapena bere gain hartuko lukeen norbait aurkitu beharko litzateke eta administrazio publikoaren laguntzarik ez litzateke egongo. Publikotasun eredu hori, beraz, galdu egingo litzateke guztiz.

Baserritarrek eta harakinek ez lukete erabakiak hartzerakoan inongo ordezkariarik edukiko, eta enpresa esplotatzailearen esku egongo litzateke erabaki guztiak.

Haragi kota handiagoak lortu beharko litzateke ezinbestean. Txostenak ematen dituen datuen arabera, 2.300-2.600 tona urteko gutxienez. Premisa eta hipotesi horren azpitik hiltegia ez da errentagarria.

### 4. HILTEGIA IXTEA |

#### • ABANTAILAK

Hiltegia Bizirik Plataformak ez du abantailarik ikusten hiltegiaren itxieran. Debagoieneko Mankomunitateak, ordea, gastu bat gutxiago izango luke. Proposamen horretan, baina, ez da kontuan hartu Mankomunitateak ganaduen garraioan baserritarrek diruz laguntzeko hartutako konpromisoa. Agian, kontuak egin ostean, ez litzateke hainbeste aurreztuko.

#### • DESABANTAILAK

Hiltegioko egungo hamabi langileak kanporatuko litzateke. Baserritar txikiak adierazi dutenez, ganadua kentzeko erabakia hartu beharrean ikusiko lukete euren burua. Honek aldaketa garrantzitsuak eragingo litzateke paisaia, ibarrean egun abeltzaintzarako erabiltzen diren lurak abandonatu egingo litzateke.

## Hiltegian Debagoiena, Debabarrena eta Urola Garaiko abereak hiltzen dira

Txostenean jasotzen denez Zubillagako hiltegiaren iristen den abereen %38,4 da Debagoienekoa. Araba eta Bizkaitik %22,8 iristen da. Debabarrena eta Urola Garaitik, berriz, %14,8 eta %7,9. Oñatiko hiltegiaren jotzen duten harakinak ere hainbat lekutakoak dira: Debagoiena (%36,3), Debabarrena (%21) eta Urola Garaia (%7,9). Datu hauek kontuan hartuko dira diru-laguntzak eskatzeko garaian.

## Proposamena lantzerakoan baserritar eta harakinen iritzia kontuan hartuko dira

Lehen aldiz, inkesta bat egin da iritzia jasotzeko. Baserritarren %95ek eta harakinen %77,5ek hiltegiaren itxiera kaltegarria izango litzatekeela uste du. Baserritarren %31,4k ganadua kendu egin beharko lukeela esan du.

Hiltegian diruz parte hartzeko prest agertu dira baserritarren %18,7 eta harakinen %12. Ezezko borobila eman dute baserritarren %23k eta harakinen %21ek.

## Txostenak dio hiltegiaren gutxieneko hobekuntza lanak egitea ezinbestekoa dela

Siadecoren txostenak planteatzen dituen egoera hipotetikoak gauzatzeko ezinbestekotzat jo dira gutxieneko hobekuntza lanak. Guztira, 67.924 euroko inbertsioa aurreikusten da. Hozkailuak berritu behar dira, ukuluen banaketa berrikusi, egungo 13ak gutxi direlako eta 18 lortu behar direlako. Azkenik, argiztapena hobetu behar da, desinfekzioa eta esterilizazio sistemak berritu, eta abar.



AITOR LIZARRALDE

Triki bertso poteoarekin eman zioten hasiera Elgetako gaztetxean korrika kilometroak erosteko jaialdiari.

## Korrikaren etorrera girotzeko ekitaldi ugari aste honetan

*Zapatuan Korrika kilometroak erosteko jaialdia egin zuten Elgetan gaztetxeak, Esna Hadik, EHEek eta Auzolanianek*

Larraitz Zeberio

Bertso eta triki poteoarekin eman zioten hasiera Elgetan Korrika kilometroak erosteko gaztetxeak Esna Hadi, EHE eta Auzolanian taldeekin zapatuan antolatuta-ko jaialdiari.

Elorrioko trikitilari taldeak alaitu zuen poteoa tabernaz taberna. Tartean Jokin Labaien arrasatearra eta Iker Agirre aramaio-rra aritu ziren bertsoan. Esan beharra dago pare bat herritarren laguntza ere jaso zutela.

Bertso poteoa animatua izan bazen, gaztetxean izan zen festan ere giro polita sortu zen. Pintxo goxoz beteriko gaztetxeko barrak lortu zuen bertaratuko guztien arreta lehenik. Ondotik, musika izan zen protagonista.

Elorrioko Skye taldearen doinu zeltek berehala sortu zuten dantza giroa eta ondotik aritu ziren Triki taldeko kideek animatua aurkitu zuten jendea. Zarauztarrek goizeko ordu txikietaraino jo zuten. Talde aldaketan zozketa egin zen. Elgetako gaztetxera jo behar duzu ondorengo zenbakidun txartelak edukiz gero; 0073, 0479 edo 0291.

**Korrikak 62 kilometro egingo ditu gurean. 320 € balio du bakoitzak eta salgai daude Arrasateko AEKn**

### KORRIKA GIROTZEN

Korrika martxoaren 16an iritsiko da gurera. Bere etorrera girotzeko hainbat elkartetek ekitaldiak prestatu dituzte. Herri gehienetan korrika txikia eta korrika afaria prestatzen ari dira martxoaren 16rako.

Aurretik, martxoaren 3an, euskarazko film laburrak proiektatuko dira Arrasateko Amaia antzokian. Biharamunean, bertso trama izango da Oñatiko Santa Anan Egaña, Lujanbio eta Arzallusekin. Martxoaren 5ean euskarari buruzko mahai-ingurua egingo da Bergarako Pol Polen.

Bi antzerki emanaldi ere izango dira. Martxoaren 12an *Zazpi bekatu nagusiak* ikusteko aukera izango da Bergarako Novedades aretoan, eta biharamunean, berriz, *Euskara sencilloaren manifestua* antzeztuko dute Arrasateko Amaia antzokian. Kontzertuak ere egingo dira martxoaren 11n eta 12an Arrasate eta Bergarako gaztetxeetan.



M.D.

Sakristiako atetik atera eta berehala autoan sartu zuten.

## Karmen Irizar espetxetik ekarri zuten hiletara

M.D.

Joan zen egubakoitzean bere aitaginrebaren hileta elizkizunerako ekarri zuten Karmen Irizar preso antzuolarra Bergarako Santa Marina elizara. Jende asko elkartu zen eliza ostean, hileta elizkizunen ondoren, Karmen agurtzeko esperantzarekin.

Elizkizuna amaituta, hoguei bat minutu izan zituen Karmenek etxeokokin egoteko, sakristiako atetik atera

eta berriz ere ertzainek autoan sartu zuten arte.

Tarte laburra izan zen, "Aupa, Karmen" esateko justu-justu. Ertzainek autoaren eta elizako atearen artean korridorea egin zuten, bertara elkartutako jendea aldendu zedila agintzen zuten bitartean. Izan ere, talde-txoa elkartu zen sakristiako atearen aurrean ikurrinak aldean, Karmen ikusteko asmoz.

Valladolideko espetxetik ekarri zuten preso antzuolarra, han baitago 2004tik.

### • SINADURA BILKETA ANTZUOLAN



AITOR LIZARRALDE

### 420 LAGUN BEHEKO AUZOKO PROIEKTUAREN KONTRA

"Luzamendua, orain" kanpainaren barruan Eguzki, Sagasti eta Beheko auzoetako bizilagunek Udalak jokaleku gorrian egin nahi dituen etxeen proiektuaren kontrako sinadura bilketa egin zuten asteburuan. 420 lagunek sinatu zuten luzamendu eskaria.

### ELGETA "HOTELA"



Martxoaren 4an, 18.30ean, atek irekiko ditugu Herritar guztiak zaudete gonbidatuta Zatozte eta egun berezi hau gurekin ospatu

San Roke 26 • Elgeta • Tel.: 943 78 91 07



Garbiketetan profesionalak gara

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Intxartxueta 16 behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 48 45  
Faxa: 943 71 30 58

# 0000 km

Mondeo  
C-Max  
Fiesta

Haxe  
da  
aukera!

**MUGARRI**

Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE  
[www.mugarri.es](http://www.mugarri.es)



gozatzeko pentsatuak irauteko eginak

ELGETAKO SAIHESBIDEA | EGUBAKOITZEAN HASI ZIREN LEHENENGO FASEKO LANAK ETA IBILGAILUAK HERRIAREN ERDITIK IGAROTZEA SAIHESTUKO DU

# Hogeita hamar urtez zain egon ondoren jarri dute lehen harria

*Kanpanzartik datorren errepidearekin bat egin eta herria kanpotik zeharkatuko du*

*Kiroldegi ondoan biribilgunea egingo dute, handik Elorrio zein Eibar aldera hartzeko*

Monika Belastegi

Egubakoitzean jarri zuten Elgetan saihsbidea izango denaren lehenengo harria. Ekitaldian izan ziren Ahaldu Nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Patxi Basauri Elgetako alkatea, Javier Zuriarrain Errepide Azpiegituretako diputatua eta Josu Agirrezabalaga Errepide saileko zuzendaria, Udaleko eta Aldundiko beste agintari batzuekin batera.

Herriko kiroldegiaren ondoan jarri zuten saihsbidearen lehenengo faseko lanei dagokien harria; izan ere, hortxe egingo dute saihsbidearen biribilgunea bakarria.

## BIDEAREN EZAUGARRIAK

Saihsbidearen lehen fase horrek 500 metroko luzera izango du eta Arrasate aldea Elorrio aldearekin lotuko du: Kanpanzartik datorren bidean hasi eta herria kanpotik zeharkatuz kiroldegiaren ondoan egingo duten biribilguneraino 411 metro izango ditu eta beste 95 biribilgunetik Eibar alderako adarrean. Adar hori, bigarren faseko lanei dagokie eta oraingo proiektua egiten dihardute, nahiz eta lanak legegintzaldi honen barruan esleituko dituzten.

Saihsbideak bi errei izango ditu, bakoitza 3,50 metroko zabaladuna eta %8,80ko gehieneko malda. Biribilgunea, berriz, 23 metroko erradioa izango du. Lehen fase honen aurrekontua 1.260.276 eurokoa da eta lanek bost hilabete iraungo dute.

## 30 URTE INGURU ZAIN

Aspaldi dabilta elgetarrak saihsbidea eskatzen eta oraingoaren aurretik beste hiru proiektu egon ziren: 1974an egin zuten lehenengo, 1982an bigarrena eta 1993an hirugarrena, baina garaian garai-ko arazoak zirela medio, ez ziren gauzatu. Hori horrela, Basauri Elgetako alkateak "egun pozgarri

eta garrantzitsutzat" jo zuen egubakoitzeko. Horren harira azaldu zuen gaur egun herri barrutik, Salvador kaletik, hain justu, auto eta kamioi ugari igarotzen direla eta horregatik bakarrik justifikatuta dagoela saihsbidea. Baina alderdi ekonomikoa ere azpimarratu nahi izan zuen Basaurik Elgetan errepide berria egitea arrazoitze-ko: "Duela bi urteko datuak hartuz gero, Elgetak bikoiztu egiten du Gipuzkoako BPGa, eta hemen sortzen den kapital horren zatia, Aldundira doa. Beraz, alde horretatik ere justifikatuta dago gastua".

Diputatu Nagusi Gonzalez de Txabarrik, bestalde, legegintzaldian Elgetan egiten diharduten eta aurrerantzean egingo dituzten hobekuntzak azpimarratu zituen eta gaineratu zuen: "demokrazia sortu zenetik honako guztiak pilatuta baino lan gehiago egingo dira legegintzaldi honetan".



Patxi Basauri Elgetako alkatea eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Ahaldu nagusia lehen harria jartzen.

## • SALBADOR KALEA OINEZKOENDAKO



**AURRESKUA.** Ekitaldiari hasiera emateko, aurre-  
skua dantzatu zuten agintarien aurrean. Gero  
-saihsbidearen biribilgunea kokatuko den lekuan-,  
lehen harria irudikatzen zuen kutxa sartu zuten  
lurrean egindako zuloan; barruan eguneko egun-  
kariak zituen.



**SALBADOR, OINEZKOENDAKO.** Gaur egun Salva-  
dor kaletik igarotzen diren ibilgailuak hartuko ditu  
saihsbideak. Hala, oinezkoendako egingo dutela  
azaldu zuen Basauri alkateak. Gaur egun kamioi  
ugari igarotzen da handik. Irudian, Salvador kale-  
ak izango duen irudia oinezkoendako egin ostean.


## Esandakoa

"Legegintzaldi honetan, Elgetan, demokrazia sortu zenetik egin diren lanak pilatuta baino gehiago egingo ditugu"

GONZALEZ DE TXABARRI |  
DIPUTATU NAGUSIA

"Saihsbidearekin, Salvador kalea oinezkoendako jarri ahal izango dugu; hori bizi kalitatea da"

PATXI BASAURI |  
ELGETAKO ALKATEA



Ordenagailuan egindako irudian ikus daitekeenez, erreka agerian lagako dute plazan.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

## Ikusgai Antzuolako erreka bideratzeko proiektua

*Osoko bilkuren aretoan dago ikusgai, martxoaren 15era arte. Alegazioak egiteko epea ere egun berean bukatuko da*

### Asteleheneko Goiencaria

Ikusgai jarri dute Antzuolan herri erditik igarotzen den Deskarga erreka bideratzeko proiektu egokitua. Asmoa erreka bitan banatzea da, orain arte sortu izan diren arazoak saihesteko.

Gaur egun, plazaren azpiko aldetik igarotzen da erreka, eta proiektuaren arabera erreka zati bat udaletxe ostetik bideratuko dute. Hala, udaletxe atzean estalitako gainezkabidea egingo dute, eta plazan, berriz, erreka agerian lagako dute.

Udaletxe ostean egingo dute estalitako gainezkabideak sei metroko zabalera izango du eta bost metroko altuera. Ondarreko transformadore inguruan hasiko da eta Eperra elkartearen atzeko partera arte ailegatuko da.

Plazako aldearen kasuan, lurra jaso eta erreka kanalizatu egingo dute; kanalak lau metro eta erdiko zabalera izango du. Bestalde, erreka gainean, udaletxearen aurrean, 19 metroko plataforma egingo dute eta baita bi pasabide ere: bata, Euskadiko Kutxaren

parean (6 metro), eta bestea, Surpe tabernaren parean (9 metro).

Udalbatzak otsailean onartu zuen proiektua osoko bilkuran. Gertu Gae plataformari dagokionez, ez dator bat proiektuarekin, besteak beste, erreka agerian utziz plazari duen funtzionalitatea kentzen zaiolako.

### MARTXOAREN 15ERA ARTE

Osoko bilkuren aretoan dago ikusgai proiektua. Planoak, 15 minutuko bideoa eta irudi birtualak daude. Martxoaren 15era arte egongo da ikusgai eta ordu arteko epea dago proiektuari alegazioak egiteko. Orduetgia-hau da: astelehenetik egubakoitzera, 10:00-13:00ra eta 14:30-19:00ra; zapatuetan, 10:00-13:00ra.



AITOR LIZARRALDE

Egubakoitz arratsaldean elkartu ziren Aretxabaletako gazteak.

## Gazte asanbladak taldeka lan egitea adostu du

M.D.

Aretxabaletako gaztetxeko kideek herriko gazteei deia egin zieten egubakoitzean egin zen asanbladara. "Gaztetxea leku irekia dela erakusteko eta denon artean aurrera begirako funtziona-

mendua erabakitzeko asmoz" elkartu ziren, gazte asanbladako kideek azaldu digutenez. Hogeita hamar bat gazte elkartu ziren eta lau taldetan banatzea erabaki zuten, aurrerantzean lanean aritzeko: diruzaintza, ekintza taldea, musika taldea eta propaganda taldea sortzea adostu dute.

### • ZUHAITZ BERRIAK ARRASATEKO MONTEIRONEN



DEIANE ARRIETA

### IAZ BOTATAKO ZUHAITZAK ORDEZKATU DITUZTE

39 zuhaitz berri landatu dituzte Monterron parkean. Belgikako haztegi batetik ekarri dituzte baina Euskal Herriko autoktonoak dira: haritzak, pagoak, makalak eta gereziendoak, besteak beste. Iaz 40tik gora bota zituzten; berriek haien lekua hartu dute.

## 18/98 auziko inputatuekin bat

### Larraitz Zeberio

Eguen iluntzean elkarretaratzeak egin ziren Bergaran eta Arrasaten 18/98+ lan taldeak deituta. Kontzentrazio isilak egin ziren Espainiako Auzitegi Nazionalean egunotan Haika-Segi auzian epaitzen ari diren gazteen eskubide zibil eta politikoak aldarrikatzeko, tartean 7 debagoiendar.

Alderdi politiko eta gizarte eragile askotako ordezkariak ikusi al izan ziren hogeita hamar minutuko iraupena izan zuten elkarretaratze isiletan.

Ondotik, 18/98+ ekimeneko kideek herriz herri lan taldeak osatu direla jakinarazi zuten, nahi duen orok bere laguntza eskaintzeko. Bergararen kasuan bilerak astelehenero egiten dituzte kultura etxean.

Sortzen diren gastuetan laguntzeko 18/98+ ekimenak hamar euroko bonoak ere atera ditu. "Gure zeregina salatzea, informatzea eta mobilizatzea da", esan zuen Bergaran Maite Aristegik. 18/98+ ekimenak ildo bereetik lan egiten jarraituko duela gaineratu zuen.



Bergarako elkarretaratzean 80 bat lagun bildu ziren.

LARRAITZ ZEBERIO

Jose Ramon Vitoria arrasatearrak 10 urte darama heziketa berezia behar duten ikasleei musika eskolak ematen. Berarekin bi berba egitea nahikoa da bere lana

zenbateraino duen gustuko nabaritzeko. Doktoretza tesia gai horren inguruan egin du, eta pozik dago, epaimahaikideek nota ezin hobea eman diotelako.

Musika eskolan egin dugu hitzordua. Bere ikasgelan bi teklatu ditu aurrez aurre. Tekla bakoitzak kolorezko eranskin bat dauka. Hemen ez da pentagramekin ikasten.

JOSE RAMON VITORIA | IRAKASLE ETA MUSIKARIA

# "Nire ikasleen arazo larriena komunikazioa da, eta musika lagungarria dute oso"

Larraitz Zeberio

## Ikerketa premia handia dago heziketa bereziaren alorrean?

Bai. 2002. urtean EAEn 26.000 ikaslelik 25 bakarrik ziren heziketa berezikoak. Guk 25 ikasle horietatik 15 ditugu Arrasate Musikalen. %60. Aditu batzuek esan didate nik ikertutako 15 ikasleak oso gutxi direla, baina dagoenarekin egin behar dugu aurrera.

## Zergatik dira horren gutxi?

Legez edozein pertsona du musika ikasteko eskubidea. Praktikan, ordea, musika eskoletan ez dago horretarako prestutako irakaslerik. Egin beharreko lana bide horretatik doa. Pauso bat eman dugu, baina asko dago egiteko.

## Eta zu nola prestatu zinen?

Kasualitatez. Duela 10 urte hasi ginen musika eskola honetan esperientzia bat egiten hezikuntza bereziko ikasleekin. Aschero musika sistemarekin hasi ginen. Sistema horrek koloreak erabiltzen ditu. Musika erakusteko eta ikasteko modu alternatiboa planteatzen du. Lauz-pabost ikasleekin hasi nintzen. Bada aurrekaririk gai horren inguruan? Ze abiapuntutatik hasi zara?

Ez dago gauza handirik. Tesia, izan ere, guztiz originala da. Dagoena musika terapiaren ingurukoa da, baina ez dago modu akademikoan onartuta. Eta are gutxiago ikerketa alorrean. Ez dago ezer Euskal Herrian, baina ezta Estatuan ezta munduan ere. 15 ikasleren jarraipena egin duzu. Atzeratasun askotariko ikasleak izango ziren, ezta?

Nire ikasleak dira guztiak eta esan behar da ez direla denak tipologia berekoak ezta adin eta maila berekoak ere. Hamarrek down sindromea dute, hiruk buru atzerapenak dituzte eta bi autistak dira. Oso tesi deskriptiboa egin behar nuela erabaki nuen. Ikasle horiekin zer gertatzen den ikertu nahi izan nuen. Nola ikasten duten jakin nahi

nuen etorkizunean erronka berriei ekiteko.

## Ondorio bateratuak atera dituzu?

Tesia egiteko homogeneizatu egin behar dituzu gauzak, baina inongo zalantzarik gabe eguneroko lanean oso garrantzitsua da ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatzea. Hori horrela egiten ez baduzu porrot egingo duzu.

## Nola planteatu duzu ikerketa?

Bost proba egin dizkiegu. Entzumenaren garapena neurtu diegu, baita psikolinguistika nolakoa duten ere. Hau da, hitz egiteko gaitasuna eta ulermena aztertu dugu. Adimen mentaren testa ere egin diegu, baita musikaren inguruko zenbait neurgarri aztertu ere. Hala nola, erritmoren garapena, tinbrea, memoria erritmikoa, memoria melodikoa, intentsitatea.

Azkenik, instrumentua jotzen ere neurtu ditugu. Datu horiek guztiak hemengo piano ikasle arrunten emaitzekin kontrastatu ditugu. Adinez eta musikan esperientzia antzerakoa duten ikasleekin.

## Zein ondorio atera dituzu?

Ikasle horien adina, batez beste, 20 urte da. Euren batez besteko adimen mentala, ordea, 4 urte da. Entzumenaren garapena ikasle arrunten maila berekoa dute. Ezberdintasuna txikia da. Musi-

**"Edozein pertsonak du musika ikasteko eskubidea baina prestatutako maisuak falta dira"**

**"Ikasle hauek nola ikasten dute ikertu nahi izan dut etorkizunean aurrera egiteko"**



Joserra Vitoria doktorea Arrasate Musikal musika eskolako ikasgelan.

LARRAITZ ZEBERIO

karen pertzepzioa edo bereizketa, aldiz, oso baxua da beste ikasleekin alderatuz gero. Instrumentu bat jotzerakoan, ordea, ikasle horiek hemengo piano ikasleekin baino gaitasun hobea erakutsi dituzte. Bai intentsitatean zein iraupen mailan ere. Notak des-

**"Musikarekin heziketa bereziko ikasleen garapen psikolinguistikoa areagotu egiten da"**

**"Pertsona hauen ez gaitasunak ikusten ditugu gehienetan. Musikarekin, aldiz, gaitasunak"**

berdintzeko, aldiz, zailtasun handiagoak dituzte eta tenpoak jarraitzeko ere bai. Aurreratu edo atzeratu egiten dira maiz. **Musikaren bitartez, ordea, beste gaitasun asko garatzen dituzte zure ikasleek.**

Musikaren bitartez garapen psikolinguistikoa areagotu egiten da. Musika, azken finean, hizkuntza bat da. Jendaurrean jotzea zure burua horretarako prestatzea da. Ikasle horien arazo larri-netariko komunikazioa da. Helburua da modu batean edo bestean musika espresio-bide bihurtzea. Beste helburu bat musikarekin gozatea da.

## Askotariko jarrerak izaten dira ikasle horien eta besteen artean?

Bai. Ikasle arrunt batek ez du jo nahi izaten. Helburuak ezberdinak dira. Hark bere trebezia erakutsi behar du, bere maila. Nire ikasleak, berriz, beti daude jotzeko prest. Musikaren bitartez gauza asko adierazten dituz-

te. Horrekin batera, gainera, beste gauza asko garatzen ditugu, hala nola: kontzentrazioa, asoziazioa, disasoziazioa, oroimena... Eta gizarteak pertsona horiek nola ikusten dituen. Normalean ezgaitasunak ikusten ditugu. Musikarekin euren gaitasunak ikusten ditugu.

## Garrantzitsua da gaitasun horiek jendaurrean plazaratzea?

Oso garrantzitsua da. Ikasle horiek kontzertua eskaintzen dutenean jendearen aurpegira begiratzen dute. Zergatik? Behar dutelako. Eurak ari dira zerbait komunikatzen, eta behar dute erantzun bat.

Behin, nire ikasle bati eskola andereñoak teklatura eskolara eraman eta pieza bat jo behar zuela esan zion. Egin zuen, eta etxean honela esan zien gurasoei: "Andereñoari aurpegia piztu egin zaio". Aurpegi horretan zerbait berezia ikusi zuen, berria eta gainera baikorra berekiko.

FAGOR-ELCO BRANDT | KONTSEILU SOZIALAK LAU BALDINTZA JARRI DITU EROSKETA PROPOSAMENA EGITEA ONARTU AURRETIK

# Fagor etxetresna elektrikoek bazkideek onartu egin dute Elco Brandt enpresa erostea

*Fagor eta Edesa kooperatibek, asanblada kideen %83rekin, onartu dute Elco Brandt taldeari erosketa eskaintza egitea*

Marijo Deogracias

“Asanblada biek onartutako akordioak bakar-bakarrik erosketa eskaintza aurkeztea baimentzea du helburu; beraz, operazioa ez dago itxita”. Berba horiekin argitu dute Fagor Etxetresna elektrikoek prentsa bulegotik egunean eta egubakoitzean bazkideek asanbladan hartu zuten erabakia. Brandt enpresaren %90 erosketa baimena eman zuten Fagorreko bazkideen %83k (2.045 aldeko boto, 335 kontra eta 88 zuri izan zen bozketaren emaitza). Frantziako taldearen %10a 2002an eskuratu zuen Arrasateko kooperatibak eta orain enpresaren jabetza osoa eskuratzeko asmoz, asanbladari aurkeztu zitzaion horretarako erosketa eskaria.

## BALDINTZATUTAKO BAIETZA

Fagor etxetresna elektrikoek kontseilu sozialak beraz, onartu egin zuen zuzendaritzak Elco Brandt taldea erosketa proposamen eskaria egitea, baina ez zuen debalde egin. Kontseilu sozialak, Uhar-kapen egindako asanbladan, lau baldintza onartzea eskatu zion zuzendaritzari. Lehenengo eta behin, operazioak ezingo du lanpostuen galerarik ekarri eta lanpostuak sortzeko ahalegina egingo du Fagorrekin. Bigarrenik, bazkideen poltsikoan ez eragiteko,

**Fagor etxetresna elektrikoek 2.045 bazkide erosketa proposamena egitearen alde agertu dira**

**Erosketa egingo balu, etxetresna elektrikoek Europako bosgarren produktorea izango litzateke Fagor**



AITOR LIZARRALDE

Fagor Etxetresna Elektrikoak Kooperatibak Arrasateko Garagartza auzoan duen lantegia.

operazioak dirulaguntzarik behar harko balu Fagor Taldeak hartuko du beregain; galerak, berriz, etorkizuneko irabaziekin ordainduko lirateke. Hirugarrenik, maiztasun jakin batekin, opera-

zioaren kudeaketaren berri eman go zaio kontseilu sozialari. Azkenik, erosketa operazioan ari diren exekutiboek, operazioak dirauen bitartean kargua ez uzteko konpromiso etikoa hartuko dute.

Elco Brandt taldeak 4.700 langile eta sei produkzio leku dauka. Erosketarekin etxetresnen alorrean Europako bosgarren ekoizlea izatea lortuko luke Fagorrekin.

## • GOIENA ALDIZKAKO ARGITALPENEN EDITOREEN I. KONGRESUAN



GOIO ARANA

### GOIENKARIA FINALISTA DISEINU SARIKETA BERRI BATEAN

400 bat lagun elkartu zen azaroaren 24an eta 25ean Salamancan burututako aldizkako argitalpenen editoreen I. kongresuan. Euskal Herritik Topagunea (Maria Gonzalez), Elhuyar (Eider Carton), Euskarazko Komunikazio Taldea (Joan Mari Larrarte eta Iñaki Uribe) eta Goiena (Gotzon Arzelus eta Goio Arana) joan ziren. Kongresuan hizkuntza koofizialetan lantzen diren argitalpenen errealitatea, doako prentsaren hazkundea eta publizitatea lortzeko teknikak izan ziren hizpide, besteak beste. *Goienkaria* finalista izan zen kongresuan egin zen diseinu ataleko sariketan.

## • MADRAZO SAILBURUA FAGORREN



AMAGOIA LASAGABASTER

### FAGORREK OÑATIN DAUKAN DOMOTIKA SAILA BISITATU ZUEN

Etxebizitza eta Gizarte gaietako sailburu Jabier Madrazo Oñatin izan zen egubakoitzean, Fagorreko Domotika saila ikusten. Sailburuaren esanetan, Jaurlaritzaren etxebizitza politikak bi helburu ditu: batetik, babes ofizialeko etxebizitzak gehitzea eta bestetik, horien kalitatea hobetzea, teknologia berriak aplikatuz. Azken horretarako, interesgarriak deritze domotika bezalako baliabideei, besteak beste, urritasunak dituzten pertsonendako eta nagusiendako baliagarriak izan daitezkeelako. Fagorreko Domotika sailean etxetresnak ahots edo internet bidez erabiltzeko teknologia lantzen dute.

Enpresa orrialdearen babeslea:



OÑATI  
Tel.: 943 71 80 80  
Faxa: 943 71 80 45

ARRASATE  
Tel.: 943 71 24 24  
Faxa: 943 71 22 98

ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 24 11  
Faxa: 943 71 20 04

[www.memesa.com](http://www.memesa.com)



## Albiste izango da

BERGARA | IZENEMATEA ZABALIK DAGO

### Kirol Zerbitzuak Pilates metodoan oinarritutako ikastaroa antolatu du

Udaleko Kirol Zerbitzuak Pilates metodoan oinarritutako ikastaroa antolatu du. Sasoiaren egon nahi duten 14 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Astelehene eta eguaztenetan izango dira eskolak, 09:30etik 10:30era edo 18:30etik 19:30era, yogako egoitzan.

Prezioari dagokionez, bazkideendako 22,8 euro da hilean eta bazkide ez direnendako, berriz, 29 euro. Matrikula, berriz, 18 euro da eta bi kontu daude sarrera egiteko: Kutxan, 2101 0070 85 0000851907 edo Euskadiko Kutxan, 3035 0009 13 0090016873. Izenez matea zabalik dago gaurtik aurrera, udaletxean, Kirol Zerbitzuan.

ARRASATE | PARISERA ETA CALPERA JOANGO DIRA

### Bidaia maiatzaren Toki Argi eta Abaroa erretiratuen elkarteekin

Toki Argi erretiratuen elkarteak adierazi du Parisera joateko oraindik eman daitekeela izena. Maiatzaren 12tik 19ra joango dira, eta herriko edozein erretiratu joan ahal izango da. Horrez gain, erretiratuen elkarteak hainbat ekimen iragarri ditu: martxoaren 11n, batzar orokorra egingo dute eta martxoaren 19an, Iruñera txangoa egingo dute.

Abaroa erretiratuen elkarteak, berriz, Calpera (Alacant) bidaia antolatu du. Bidaia maiatzaren 13tik 22ra iragarri zuten arren, 12tik 21era egingo dute. Aldaketa hori Calpeko hotelak eragin du. Bazkideek lehentasuna izango dute, baina herriko erretiratuek ere eman dezakete izena.

ARRASATE | IZENEMATEA ZABALIK DAGO

### Udako oporretan ume sahararrak etxean hartzeko deia egin dute

Nubi taldeak jakitera eman du, zabalik dagoela udako oporraldian -uztailean eta abuztuan- ume sahararrak etxean hartzeko izenemate epea. Martxoaren 16ra arteko epea dago, nahiz eta luzatu daitezkeen, eta izena emateko udalera jo behar da -Prebentzio zerbitzua, 943 79 09 00- edo Nubi elkartera deitu: 685 72 48 16, 685 72 48 17 edo 685 72 48 18.

Hirugarren urtea da ume sahararrak Arrasatera datozena. Dozena bat ume etorri izan dira, zazpi eta hamabi urte bitartekoak. Horrekin lotuta, Udalak astean erabaki du Algeriako errefuxiatu guneetatik etorriko diren gehienek hamabi umeri Arrasatera arteko bidaia ordaintzea. Horrekin batera, Nubiko kideek adierazi dute, zain daudela ibarreko beste Udal batzuek ere bat egiten duten ekimenarekin.

BERGARA | ASTEON BUKATUKO DA IZENEMATEA

### San Joxepe elkarteak zuzendaritza berritzeko hautagaiak behar ditu

San Joxepe erretiratuen elkarteak hasitako kanpaina asteon bukatuko da. Kanpainaren helburua da berritzekotan diren zuzendaritza batzorderako hautagai zerrenda osatzea.

Batzar Orokorrean zuzendaritzaren erdia berrituko dute, bost kide, hain justu ere, eta oraingo, ez dute jaso kopuru horretara ailegatzeko proposamen nahikoa. Bi urtean behin berritzen dute San Joxepe elkartearen zuzendaritzaren erdia baina 2003 urtetik arazoak dituzte hautagaiak aurkitzeko. Hori horrela, zuzendaritzako kideetako batzuk lau urte daramate karguan.

ANTZUOLA | ERAKUSKETA OSATZEKO DEI EGIN DUTE

### Jose Luis Santamariak Maristez jardungo du datorren astean

San Joserren estatutuak 75 urte betetzen dituela eta, hainbat ekitaldi antolatzen dihardute hori ospatzeko. Besteak beste, Jose Luis Santamariak, Antzuolako Maristetan irakasle izandakoak, hitzaldia egingo du, martxoaren 10ean. Garai hartako kontuen berri eman go du Santamariak eta herritarrek egindako galderei ere erantzungo die.

Horrez gain, Maristen gaineko erakusketa ere antolatzen dihardute. Hori horrela, Udaletik eskaria egiten diete herritarrei, Maristekin lotutako materiala izanez gero udaletxera eramateko; argazkiak eta eskola materiala, esaterako.

## Hitzorduk



### IBARREKO TRANBIAREN PROIEKTUA IKUSGAI DAGO HIRU HERRITAN | Aretxabaletan, Arrasaten eta Bergaran daude erakusketak

Debagoieneko tranbiaren gaineko erakusketa ikusgaiteko modua dago hiru herritan. Izan ere, orain azkeneko zabaldu dute Aretxabaletan (argazkian, aurkezpeneko une bat), eta zabalik dago Arrasaten eta Bergaran ere. Proiektuaren xehetasun guztiak daude ikusgai: ibilbidea, planoak, argazkiak...

Aretxabaletan, udaletxeko ganbaran dago erakusketa, 08:00-21:00, martxoaren 20 arte; Arrasaten, Monterronen, astegunetan 10:00-13:00 eta 16:00-20:00, martxoaren 23 arte; eta Bergaran, astegunetan 11:00-13:00 eta 17:00-20:00 eta zapatuetan 11:00-14:00, apirilaren 15era bitartean.

#### ARETXABALETA |

- Berritasunak Osasun Etxeko zerbitzuan

Aurrerantzean, 20:00ak arte egingo du lan hiru lagunek osatutako talde batek. Mediku bat, erizain bat eta administrari bat arituko dira.

#### ARRASATE |

- Realaren partidurako sarrerak salgai astelehenean

Realak etzi, eguaztena, jokatuko du partidua, eta Monte tabernak gaur, astelehena, bakarrik salduko ditu horretarako sarrerak.

- Erretiratuen irteerarako izenemate epea, zabalik

Calpera irteera antolatu du Abaroa erretiratuen egoitzak. Bazkideek martxoaren 11ra bitartean dute izena emateko aukera; gainerakoek, bihar, martitzena, dute azken eguna.

- Ekin Emakumeak elkarteak urteko batzarra egingo du

Ekin Emakumeak elkarteak batzarra egingo du etzi, eguaztena, euren egoitzan, 18:00etan.

- Sexualitatearen gaineko mahai-ingurua, bi aditurekin

Sexualitate Osasuntsuak delako mahai-ingurua egingo dute hilaren 3an, eguena, Monterronen, 18:00etan, Agurtzane Ormaza sexologoak eta Emilio Lopez Adan ginekologoak. Udal Sexologia Zerbitzuak antolatzen du ekitaldi hori.

#### BERGARA |

- Sukaldari gazteen zikloan antolatutako afaria

Sukaldari bergarar gazteen zikloa antolatu du Gure Ametsa elkarteak, eta hilaren 24an Imanol Rementeriak prestatutako afaria izango dute. Izena emateko azken eguna duzue gaur, astelehena. 24 euro da.

- San Joxepe elkarteak zuzendaritza batzorde berria

San Joxepe elkarteak zuzendaritza batzordeko kide izan nahi dutenek gaur, astelehena, dute izena emateko azken eguna. Horretarako, batzordeko oraingo kideren batengana jo behar dute.

#### ELGETA |

- Fruta modu ekologikoan zaintzen irakatsiko dute

Eskolak martxoaren 3tik 17ra bitartean izango dira, herri eskolan, 17:00-21:00. Izena emateko 943 76 18 00 telefonora deitu behar duzue. Maya Ingurumen Taldeak antolatu du.

#### ESKORIATZA |

- Amuska taldearen afarirako izenemate zabalik dago

Amuska emakume elkarteak afaria antolatu du Gure Ametsa jatetxean martxoaren 12rako. Izenez matea zabalik dago kultura etxean. Bazkideendako 33 euro da; gainerakoendako, 40.

#### OÑATI |

- Ingurumen Astearen barne, hitzaldia eta zinema

Gaur, astelehena, Kantauriko zetazeoen eta itsas bizitzaren gaineko hitzaldia izango da natur eskolan, 19:00etan, eta bihar, martitzena, *Deep Blue* filma emango dute kultura etxean, 19:30ean.

- Markelen Lagunartiak zenbait ohar egiten ditu

Lagunartiak jakinarazten du aurtengo kuota martxoan kobratuko duela; aurten, 10 eurokoa. Iaz bazkide egin eta kontu korrante zenbakia eman zutenei kopuru hori kenduko zaie. Aurrerantzean ez dute ordainik eskura hartuko. Bazkide egiteko txartelak Aloña Mendi tabernan daude.

- Haurtzaroko beldurren gaineko hitzaldia izango da

Gaua, bakardadea, heriotza... bezalako umezaroko beldurren gainean berba egingo du Ezozi Arizaga adituak etzi, eguaztena, Errekalde Herri Eskolako aretoan, 18:00etan. Interes duen edozeinendako dago zabalik.

- Nagusien boluntario lana argitzeko hitzaldia, etzi

Nagusien boluntario lana argitzeko hitzaldia izango da etzi, eguaztena, Pake Leku erretiratuen egoitzan, 17:30ean. Nagusilan erakundeak egingo du berbaldia.

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 76 92 71**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Txistua Bergarako ardo dastatze ikastaroaren antolatzaileendako

Gure irakurle batek deitu digu Bergaran antolatu duten ardo dastatze ikastaroaren gainean txistua helarazteko. Ikastaro horretan izena eman nahi izan du, baina ez diote laga Bergarako ez delako. Haserre agertu da.

### • Antzuolan erreka bideratzeko proiektua

Irakurle batek txaloak bidali ditu Antzuolako udalean ikusi berri duen erreka bideratzeko proiektua dela-eta. "Bazen garaia hainbeste urtetan eztabaidagai izan den arazo bati azkenik irteera bat emateko. Ea lanak laster hasten diren!".

### • Bergarako garbiketa brigadari txistua

Beste irakurle batek ondorengo kexa helarazi digu: "Simon Arrietako Kutzaren horman kartel ugari jartzen dituzte. Baita garbiketa brigadak kendu ere. Kontua da, garbiketa lanak hobeto egin behar direla, ikusi egin behar baita horma horren goiko alde nola dagoen. Dena kartel pusketaz zipriztindua. Banketxeak kutzazaina duela iragartzen duen argidun errotiluak ere itxura penagarria du".

### • Zaborrez gainezka Elgetako zaborrontziak

Hirugarren txistua iritsi da gure erredakziora aste honetan, kasu honetan Elgetako edukiontziak zaborrez gainezka daudelako. "Ez dakit zein den irteera baina Elgetako zaborrontziak zaborrez gainezka daude. Mankomunitateak esanda dauka elurra dela-eta kamioiak ez direla leku guztietara iristen. Ikusten denez, Elgeta leku horietako bat da. Zaborra etxean? Jakin badakigu luzaroz ezinezkoa dela".

## Sarean harrapatuta

### Jaietan herrian egiten diren apurketak

Jaiegunetan sarri gertatzen dira apurketak herrietan. Aretxabaletan, Aratuste-domekan egin zituzten apurketak, eta etxafuegoekin egindakoak izan ziren gehienak. Hala, nor egin beharko litzateke sortutako

kalteen arduradun? Zer egin daiteke jaiegunetan egiten dituzten apurketak egin ez ditzaten? Hori izan da *Goiena.net*-eko Aretxabaletako atalean jarri duten galdera. Hemen bildu ditugu erantzun batzuk.

### GAUEZ ERTZAINAK JARRIKO NITUZKE

Oker ez banago, gure herriko udaltzainek gauez ez dute lanik egiten. Suposatzen dut, gutxi direla eta hiru errelebotan eta aste-ko zazpi egunetan lan egiteko arazoak izango dituztelako.

Baina, ertzainak ere zerbaitetarako egongo dira, ezta? Geroz eta promozio gehiago ateratzen ari dira, baina ertzain bat ez da kalean ikusten, kafea hartzen tabernaren baten ez bada behintzat. Ez al da hauen ardura kaleko segurtasuna zaintzea? Non ibiltzen dira?

Segurtasuna / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### APURKETA GUZTIAK EZ DIRA KINTOENAK

Domeka gaueko kalte denak ez genituen kintoak egin. Aratuste-domeka gauean edozein mozko-rrrek edozer gauza apurtu zezakeen (jai denetan pasatzen den moduan). Gero, kalte guztien errua guri egozte ez zait justua iruditzen. Adibidez, Mari Merke ondoko kristalean, plazako iturrian, Duranako banku baten eta zuhaitz batzutan guk ez dugu ezer egin eta erru guztia guri bota digute. Benetan lotsagarria iruditzen zait zein izan den esaten ibiltzea inongo probarik edukitzea.

Kintxo bat / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### LEHENGO GAZTEAK SANOAGOAK ZIREN

Gazteak betidanik gazte izan dira eta gaztetasunak bada-kigu ausardia, parrandarako gogoia, eta abar dakartzala. Baina, ziur nago, lehenko gazteak oraingoekin konparatuta askoz ere sanoagoak zirela. Eta ziur egon, orain baino askoz ere berriketa eta kapritxo gutxiago genituela, eta, zer esanik ez, diru gutxiago.

Gizarteak ere aukera gutxi eskaintzen zigun: ez jaialdirik, ez zinematik, ez lokalik... Eta ederto jiratzen ginen asteburuak pasatzeko. Aspertuta egon arren, ez zitzaigun bururatzen arbolak puskatzen hastera.

Joseba / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### GALDETU GAZTEARI ZERGATIK EGIN DUEN

Nik egingo nukeena da galdetu zergatik gazte batek kontainer bat lurrera botatzen duen; zergatik apurtzen duen kristal bat. Ez naiz kintoekin sartuko, baizik eta gazeriarekin. Ez dugu lan egiteko aukera handirik, ezin gara inpendizatu, etxebizitzak geroz eta

garestiagoak dira eta gainera baztertu egiten gaituzte horregatik. Hori ez da arrazoia apurketak egiteko, baina, seguru asko, apurketak egiten dituen horrek arazo horiek ditu. Gazteria hilda dago eta horren errua, duda barik, gure aurreko belaunaldiek dute.

Pako / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### DENA PIKUTARA JOANGO DA HORRELA JARRAITUZ

Zeintzuk ibili ziren etxafuegoekin Santa Ageda Bezpera eguna eta Aratuste-domekan? Kintoen artean egin beharko duzue berba.

Ondo dago kintoek jarraitu behar dutela pentsatzea, baita Txino dantza ere. Baina ez barrabaskeriak egiteko, bestela dena pikutara joango da. Ez Santa Ageda mutil guztiengatik, baizik eta Santa Ageda mutil konkretu batzuegatik.

Jon / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### ETXAFUEGOEK ERRU HANDIA DUTE

Kintoak beti izan dira bihurriak baina hortik horrelakoak egitera alde handia dago. Nik uste dut erru handia etxafuegoek dutela. Ez al daude debekatuta? Etxafuego gabe ez ziren hainbeste gauza gertatuko. Hala ere, kapazak dira harriekin hasteko.

Irakurle bat / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## Halaxe erantzun digute

Joan Paulo II.  
Aita Santua  
erietxera eraman  
dute berriz ere.  
Zure iritzi  
aitasantutza  
eramateko gai da?



INAXIO ARREGI |  
VATIKANO IRRATIKO ZUZENDARIA

"Zalantzarik gabe, Aita Santuaren lanak mugatuta daude, baina bere kolaboratzaileak ditu. Bestalde, hau ez da gobernu politiko baten modukoa. Aita Santua pieza bat da kate luze baten muturrean. Kristau sinestunek lan handia egin dezakete eliz barrutietan. Autonomia handia dute".



ITZIAR ASTIAZARAN |  
NAFARROAKO UNIBERTSITATEA

"Aita Santuaren osasun egoera ondo ezagutu behar da galdera honi erantzuna emateko, eta ez da nire kasua. Osasun mentalarik buruzko informazioa beharko nuke. Burua ondo badauka eta karguko ardurak betetzen baditu ez dut arazorik ikusten nahiz eta oheratuta egon".



DIEGO MARTIARTU |  
ITZULTZAILEA

"Izango ez da ba! Gutako *hogeita-margatu* asko baino buruargiago ikusten dut nik, homosexualak eta kondoi zaleak egurtzen, liburuak idazten... Holako galderekin, Wojtylaren mezuaz eztabaidatu beharrean, ematen du zaharrak ezertarako gai diren dudan jartzen gabiltzala. Gora zaharrak!".



PELLO ZABALA |  
FRANTZISKOTARRA

"Ez eta inondik ere. Eliza zahartu baten irudia ematen du eta ez dut uste laguntza handirik eman dezakeenik. Zer esaten duen ere ulertzen al zaio? Erromako mezua ententitzen al da? Gaurko munduak eliza berri bat eskatzen du, gehien bat Afrikan eta Hego Amerikan. Ezin da onartu".

## Egunkarietako harribitxiak

### TESTA UMEA JAZARRITA DAGOEN JAKITEKO

Hezkuntza Zientzietan aditua den Placido Blancok umeak *bullyinga* sufritzen ari diren jakiteko testa egin du. *Bullyingo* du izena eta gurasoen lagungarri izan nahi du. Lau ataletan banatuta, umeendako hainbat galdera ditu; baita gurasoendako eta irakaslearendako aparteko galderak ere.

'El Diario Vasco'  
2005-02-27



### HAURDUN ADOPTATUTAKO ENBRIOIAREKIN

Kataluniako 41 urteko emakumezko bati adoptatutako enbrioia jarri diote eta haurdun dago. Halaxe jaso zuen atzo *El Mundo* egunkariak *Cronica* gehigarrian. Lehenengo emakumea da adoptatutako enbrioiarekin haurdun gelditzen. Duela zazpi urte zegoen enbrioia izoztuta klinika batean, norbaitek lagata, eta huraxe eman diote

emakumeari. Umekiak hiru hilabete ditu dagoeneko. Erreportajeak gehitzen duenez, martxoan hainbat italiar joango dira Bartzelonara adoptatutako enbrioiarekin haurdun geratzeko. Mugimendu katoliko bateko kide dira. Modu horretan, egon daitezkeen enbrioi *umezurtzak* suntsitzea saihestu nahi dute.

'El Mundo'  
2005-02-27



## Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2005-11-27

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Gara'

ELKARTASUNA ETA KONPROMISOA

18/98+ lan taldearen inguruan sortutako dinamika zerbait lortzen ari da: auzipetutako 221 lagunetatik haratago, euskal gizartea da, zuzenean apelatua auziongatik. Hainbat eskubide bertan behera geratzen dira dinamika ilegal eta amoral honekin. Bilbon erakutsitako elkartasun eta konpromisoarekin egin ahal zaio aurre.

Editoriala  
2005-02-27

### 'Deia'

ZALANTZAK ARGITZEKO ARDURA

Atzo Bilbon adierazi zena da, justizia administrazioa bere independentziari uko egiten ari dela eta politikaren menpe egon daitekeela. Ez da egoera gozoa, baina epaileen eskuetan dago eta euren profesionaltasunean, uste hori kontrastatzea jokaera garbi eta zorrotzarekin, azken emaitzari begira egon gabe.

Editoriala  
2005-02-27

### 'El Mundo'

EZ NAZIONALISTAK ATZERIAN

Eskubideak ukatzen zaizkien euskaldun horiek Madrilen elkartu behar dira, edo hilerri batean. Bien bitartean, milaka nazionalista kalera atera ziren Bilbon, Jarrairen eta Batasunarekin lotura duten beste erakunde batzuen kontrako epaiketen aurka azaltzeko. EA han zen. Arzalluz eta Egibar ez, baina bat egin zuten protestaldiarekin.

Editoriala  
2005-02-27

### 'El Diario Vasco'

EPAIKETA POLITIKOA

"Herritarren zati handi batek ulertu egin du manifestazioaren arrazoia, eta horregatik egin dute bat. 18/98ko sumarioak pertsonen oinarrizko eskubideak arriskuan jartzen ari dira. Izan ere, inongo froga barik oinarririk gabeko leporatzeak egiten dira. Hemen epaiketa kolektiboa dago, eta epaiketa politikoaren antz handia du.

Mariano Ferrer  
2005-02-27

## Zorroztailea



## Berbera

*Artistoi oztopoak jartzen zizkiguten pertsonen aurkako istorio bat kontatu nuen: Francoren garaiko kultura arduradunak, eliza eta abar. Ilargitik espaziuntzi batean Donostiako badiara artistak salbatzera datozenen bidaia kontatzen zuen filmak. Gaur, beste giro politiko batean kokatuta, istorio berbera kontu liteke, artistaren aurkako presioa berbera da eta.*

Jose Antonio Sistiaga  
'Berria' | 2005-02-20

Gerardo Markuleta

Zutabetxo hau laburregia litzateke "artista" izatea zer ote den azaltzen hasteko ere. Onar dezagun, bada, artistaren definizio estandar gutxi gorabeherako bat, edo bi. "Eder lanean aritzen den pertsona" omen da artista, baina baita "kantuan, dantzan... aritzen den pertsona, ogibidez bereziki", adiera bi horietan bereizten baititu Sarasolaren hiztegiak.

Presioak, berriz, bai, presioak denok ezagutzen ditugu. Tamainan eta itxuran izaten dira aldeak. Artista garenok (baina nork banatzen ditu artista tituluak?) eta artista ez direnek ere geure presioak bizi ditugu, geure sakadura, zapaldi eta hersturak. Eta hortxe dago hain zuzen ere, elkarren presioak batzuk besteekin alderatzeko zailtasun oinarrizkoa: nork bere pre-

sioak bizi ditu gertuen, nork bera-ri eta ingurutxokoei egindakoez arduratzen da gehien bat, norberak eta ingurutxokoei besteri eragindako ez axola gutxiago izanik. Are gehiago, alde aurretik beste horiek "etsai" izendatu bagaituzte edo izendatu baditugu.

Beste giro politiko bat, dio Sistiagak, baina istorio berbera eta presio berbera. Hasiera batean, iritzia "Francorekin/Francoren aurka hobeto bizi ginen" haren beste bertsio bat izan zitekeela pentsatu nuen, baina berehala ohartu nintzen "Francorekin bezain gaizki bizi gara orain" ezagunaren beste bariazio bat zela. Egun txarra da beharbada hau esateko -eutsi, Gartzent!-, baina ez dut uste oraingoa presio berbera denik. Batzuetan tamainan antzekoa baliteke. Baina presioa oso bestela banatua dago. Eta ez dator bakarrik Francoren lekukoa hartu zutenengandik.

**"Beste giro politiko bat, dio Sistiagak. Baina istorio berbera eta presio berbera. (...) Ez dut uste oraingoa presio bera denik"**

**"Tamainan antzekoa baliteke. Baina presioa oso bestela banatuta dago. Eta ez dator bakarrik Francoren lekukoa hartu zutenengandik"**

# KIROLA

- Arrikruz taldeak porrota egin zuen azkenengo bi minutuetan | 18
- Mugarri-Alkesak hirugarren postuan dagoen Padurari irabazi zion | 19



Jon Odriozola  
Orbeako  
entrenatzaile  
oñatiarrarekin  
egon gara | 20

## FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

ATHLETIC

1-2

VIENAKO AUSTRIA

**Athletic** | Lafuente, Iraola, Murillo, Luis Prieto (Lakruz ats.), Del Horno, Gurpegi (Tiko 74. min.), Orbaiz, Etxeberria, Yeste, Ezkerro (Llorente 72. min.) eta Urzaiz.

**Vienako Austria** | Didulica, Dospel, Afolabi, Antonsson, Papac, Kisenebner, Blanchard, Sionko, Vachousek, Vastik (Gilewicz 73. min.) eta Dosunmu (Rushfeldt 84. min.).

**Golak:** | 1-0 Yeste (19. minutuan). 1-1 Sionko (36. minutuan). 1-2 Sionko (69. minutuan).

**Epailea** | Grzegorz Gilewski. Penaltia zalantzakoa izan zen, baina bestela ondo adierazi zituen egondako jokaldiak.

**Bestelakoak** | San Mames bete egin zen. Vienatik etorritako 100 jarraitzaileek iskanbilak sortu zituzten eta segurtasun gizonekin arazo batzuk izan zituzten. Madrilen Jarrai, Segi eta Haikako partaide ohiei egiten ari zaien epaiketaren kontra zegoen neska batek zelaira salto egin zuen epaia salatzeke asmoarekin.

### Bikain

#### Desertua

Atzokoan ezin daiteke inor goraiatu. Azkeneko partiduetan erakutsitako maila ez zuten eman eta; horrelako partiduan barkaezina da

### Kaskar

#### Atzeko akatsak

Jasotako bi golak atzealdean izandako akatsen ondorioz etorri ziren. Lehenago ere partidu dezente galdu zituzten horren erruz eta oraingoan UEFari agur esateko balio izan dute

### Esandakoak

"Beharbada porrota ondo datorkigu, izan ere edonoren kontra galdu dezakegula erakutsi digu partidu honek".

ANDONI IRAOLA |  
ATHLETICEKO JOKALARIA

"Ez da hanka sartzea inondik inora ere; orain jokalarien errekupeazioa da gehien kezkatzen nauena".

ERNESTO VALVERDE |  
ENTRENATZAILEA



ARGAZKI PRESS

Etxeberriaren aurpegia partidua isla da. Bigarren zatian ezintasuna nagusitu zen San Mamesen.

ATHLETIC | EUROPATIK KANPO GELDITZEN DA TALDE ZURI-GORRIA

## Aspaldiko mamuak agertu ziren San Mamesen



Jon Unamuno

*Markagailuei buelta ematen ohituta zegoen taldeari medizina bera ezarri zioten. Bi akatsen ondorioz etorri ziren Vienako golak eta UEFatik kanpo gelditu zen Athletic*

Ohetik jaiki berri, leihora begira, Athleticen partidua bertan behera gelditzeak ekar zitzaizkeen eragozpenetan pentsatu nuen. Partidua ikusi ostean, eragozpenak abantaila bihurtu ziren. Gutxi espero zuten UEFako tx-

pelketatik kanpo geldituko zela Athletic eta Yestek penaltiz sartutako golarekin are eta gutxiago. Hala ere, Madrilek edo Betis moduko taldeek ezin izan zutena egin lortu zuten austriarrak: Athletic garaitzea. Ilusio bat

gutxiago. Edo ez? Jokalari eta entrenatzaileen hitzetan nekea ageri dela ikusten da eta txapelketa bat lagatzekotan, hau UEFA da.

Sionkok bere lehen gola sartu arte, Athletic ondo bideratua zuen partidua. Yesteren golak

zortzirenetara pasea zekarren. Hala ere, atzealdean akatsak agertu ziren berriz ere. Lehen golean Lafuenteren akatsa eta bigarrenean Gurpegirena. Bestetan ikusi den erreakzioa ez zen momentu batean ere ikusi.

### EGUAZTENEAN MALAGARA

Pazientziaz ibili behar da Athletic hurrengo partiduetan. Hainbeste partidu galdu barik egon ostean, euren dute konfiantza ez dute galdu behar. Eguaztenean Malagan izango dute euren jokoa erakusteko aukera.

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• 700.000 EUROKO ESKAINTZA ONARTU BEHARKO LUKE VALVERDEK?



NAHIA ETA IRATXE |  
ANTZUOLA

**“Beste talde bateren eskaintza izango du eta Valverde diru gehiago lortzeko egiten du presioa”**

Athleticek egin dion eskaintza nahikoa dela uste dute bi neska hauek. Hala ere, euren ustez badago arrazoi garbi bat Valverde oraindik eskaintza ez onartzeko “beste talde bateren eskaintza izango du eta kluba presionatu nahiko du”.



TXOLO |  
OÑATI

**“Galaktikoek irabazten dutena eskatu beharko luke”**

Valverde miresten du Txolok eta Athleticen eskatzen diona gutxi delakoan dago. “Galaktikoek irabazten dutena eskatu beharko luke”, esan zuen.



LUIS GARCIA |  
BERGARA

**“Taldeak asko hobetu lezake eta normala da gehiago eskatzea”**


“Valverde gaztea da eta Lezama ezin hobeto eza gutzen du. Aurtengo bloke berarekin, urte batzuetan liga irabazi dezake”, adierazi zuen.



UXUNE, OHIANE, MARITERE, BEÑAT ETA MARTA | OÑATI

**“Lotsagarria da gaur egun futbol munduko profesionalak irabazten dutena”**

Alde batetik ulertzen dute Valverde gehiago eskatzea: “beste batzuk irabazten dutena jakinda, normala da Valverde ere gehiago eskatzea”. Hala ere, arrazoi horren gainetik beste bat gailentzen da oñatiar hauen artean: “lotsagarria da gaur egun futbol munduko profesionalak irabazten dutena”.



JAVIER ROMAN | BERGARA

**“Ekonomia ez dago ondo eta ulertu beharko luke”**

“Ekonomia ez dago ondo eta ulertu beharko luke. Jokalari egindako eskaintzak ere bajuak izan dira. Eskaintza onartu beharko luke”.

Reala

**Batzuetan, bestea baino gehiago izatea ez da garaipenaren sinonimo**

*Realak arrisku gehiago sortu zuen, eta baita hobeto jokatu ere, baina gola madrildarrek sartu zuten*



Jokin Etxebarria

Bolada onari agur esan zion atzo Realak Vicente Calderonen. Ez zuen galtzerik merezi izan, ez zen eta Athletic Madrildar baino gutxiago izan eta. Baina, aukera garbiak huts egiten dituzunean, normalean buelta etortzen da, eta atzokoan ere horrela gertatu zen. Nihaten hutsa nabari da taldean, baina Gari Urangak egindako lana azpimarratzekoa da. Berak izan zituen gola sartzeko aukerarik onenak. Hori bai, ez zuen asmatu.

Amorrortu ere ohartu zen Nihaten gabeziak, eta sistema aldaketa bat proposatu zuen, zela erdian bost jokalarri jarri. Karpinek jokatu zuen punta-erdi lanetan, eta Gari Urangak ezkerretik. Baina, taktika aldaketa ez zitzaion ongi irten Deustuko entrenatzaileari. Azken aldian, horren emaitza onak izandako taktika zergatik aldatu zuen ez dut ulertzen. *Nihatdependentsia* ote dago Realean? Turkiarra datoren urtean joaten denean zer egingo dugu orduan?

Baloi jabetza etxeokendako izan bazen ere, aukera garbienak donostiarrek sortu zituzten, eta arrisku kutsu gehiago ere sortu zuen Realak. Etxekoen jokoa oso estatikoa zen –azken aldian jokatu ohi duten moduan– eta Realak gatz gehiago jartzen zion jokari. Hori bai, Gronkjaerrek eskuin hegalean baloia hartzen zuen bakoitzean sartzen zitzaigun urduritasuna. Rossatori denetan joan zitzaion, eta horrelako jokaldi batean sartu zuten etxeokok gola. Sekulako gola gainera Antonio Lopezek sartutakoa. Hori bai, Rekarteren laguntza txiki batekin.

Hala ere, Realak ez zen kikildu, eta joko bera egiten jarraitu zuen, eta aukerak sortzen jarraitu zuen, baina emaitza on barik.

Realaren bigarren zatia ez zen onegia izan. Madrildarren jokoaz kutsatu zela eman zuen, eta lehen zatian izandako gatz hori galdu zuen. Hala ere, erasora

AT. MADRIL

1-0

REALA

At. Madril | Leo Franco, Molinero, Pablo Ibañez, Perea, Antonio Lopez, Sergi (Salva 46. min.), Colsa, Marcelo Sosa (Raul Medina 67. min.), Ibagaza (Richard Nuñez 93. min.), Gronkjaer eta Fernando Torres.

Reala | Riesgo, Lopez Rekarte, Labaka, Brechet, Rossato, Xabi Prieto, Karpin, Mikel Alonso, Aranburu (Barkero 73. min.), Gari Ruanga (De Paula 73. min.) eta Kovacevic.

Golak: 1-0 Antonio Lopez.

Epailea: Medina Cantalejo. Nahiko gaizki. Etxekoen alde ibili zen gehien bat.

Bikain

KARPIN

Estoniarra zelai erdira jokatzera pasa denetik partidu oso onak egin ditu. Atzokoan ere horrela izan zen. Bera izan zen taldeko jokalarri onena.

Kaskar

ROSSATO

Brasildarrak ez zuen bere egunik onena izan. Gronkjaer daniarra behin eta berriz joan zitzaio hegaletik, eta gainera bidegabeki kaleratu zuten.

irten ziren eta horrek ia madrildarren bigarren gola ekarri zuen. Eskerrak, Torres eta Ibagaza ez ziren fin ibili.

MEDINA CANTALEJO

Epaile andaluziarra oso kaxkar ibili zen atzokoan. Etxekoen alde gehien bat. Kovacevic egindako bi penalty argi ez zituen ikusi nahi izan, eta gainera serbiarrari txartela atera zion. Baina hori ez zen txarrena izan. Partiduko azken minutuetan Rossatoren kaleratzea besazpitik atera zuen epaile jaunak.

**Amorrortuk sistema aldatu zuen Nihaten hutsunea zela eta**

**Bigarren zatian Real madrildarren jokoaz kutsatu zen eta lehen zatiko gatz galdu zuen**

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Espanyol-Albacete	2-1
Numantzia-Bartzelona	1-1
Valentzia-Betis	2-1
Sevilla-Racing	2-2
Deportivo-R. Madril	2-0
At. Madril-Reala	1-0
Athletic-Getafe	atz.
Mallorca-Levante	1-2
Zaragoza-Vila-real	1-0
Osasuna-Malaga	1-6

HURRENGOAK

Malaga-Athletic
Racing-At. Madril
R. Madril-Betis
Getafe-Deportivo
Bartzelona-Espanyol
Sevilla-Valentzia
Reala-Zaragoza
Vila-real-Mallorca
Albacete-Osasuna
Levante-Numantzia

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	58	25	18	3	4	50	18
2. Real Madril	50	25	16	7	2	43	21
3. Sevilla	42	25	12	7	6	30	27
4. Valentzia	41	25	11	6	8	37	25
5. Betis	41	25	11	6	8	40	30
6. Espanyol	41	25	12	8	5	32	28
7. Vila-real	40	25	11	7	7	41	22
8. At. Madril	36	25	10	9	6	27	23
9. Athletic	35	24	9	7	8	39	32
10. Deportivo	35	25	8	6	11	35	34
11. Zaragoza	32	25	9	11	5	30	38
12. Malaga	31	25	9	12	4	25	33
13. Levante	30	25	8	11	6	27	37
14. Osasuna	30	25	8	11	6	34	45
15. Reala	29	25	8	12	5	30	35
16. Getafe	27	24	7	11	6	22	27
17. Racing	25	25	6	12	7	24	38
18. Albacete	23	25	5	12	8	23	35
19. Mallorca	21	25	5	14	6	24	41
20. Numantzia	18	25	4	15	6	16	40



Kiniela

KINIELA

1. Zaragoza-Vila-real	1
2. At. Madril-Reala	1
3. Sevilla-Racing	X
4. Valentzia-Betis	1
5. Deportivo-R. Madril	1
6. Tenerife-Pontevedra	X
7. Osasuna-Malaga	2
8. Espanyol-Albacete	1
9. Numantzia-Bartzelona	X
10. Mallorca-Levante	2
11. Cadiz-Sporting	X
12. Celta-Murtzia	1
13. Valladolid-Terrasa	X
14. Elx-Xerez	2

PREFERENTE MAILA



AITOR LIZARRALDE

Defentsan sendo egon zen Mondra, eta kontraerasoen bidez min egiten saiatu zen.

## Mondrak erakutsi du liderra bezainbeste dela

MONDRA  
**0-0**  
TOLOSA

**Mondra** | Mikel, Torres, Markel, Argider, Laspiur, Ruben (Maikel 67. min.), Arkaitz, Loiti (Lopez 32. min.) (Jokin 90. min.), Muxi, Keixi eta Asier (Inazio 63. min.).

**Tolosa** | Apeztexea, Aimar, Jon, Unai (Illunbe 72. min.), Errasti, Artola (Regillaga 45. min.), Romero, Orue, Lasa (Aran-guren 86. min.), Elola (Zuloaga 76. min.) eta Blanco (Prados 45. min.).

**Epailea:** Varilla jauna. Oso gaizki. Bi taldeendako egon zen gaizki, baina lehen zatiko azken jokaldian Tolosakoek Rubeneri egindako penalti garbi bat jan zuen.

Jokin Etxebarria

Partidua hasi baino lehen Mondrako jokalaria pankarta batekin irten ziren *larri dauelako, zigorra bete dauelako Jon etxera* lelopean. Tolosa zuen bisitari Mondrak, liderra. Baina sailkapenean lehenak direnek ez zuten erakutsi arrasatearrak baino gehiago direnik.

Partidua oso taktikoa izan zen. Bi taldeak, euren atea hutsean gelditzeko nahiarekin, atzean sendo jarri ziren -horren adibide da Josu Zubiak bost jokalariko defentsa erabili izana- eta erasoan, egon ziren aukera apurrak aprobeztatu nahi izan zituzten. Hala ere, ez talde bateko ez besteko aurrelariak ezin izan

zituzten defentsak gainditu. Tolo-sarrak erasoan irteten zirenean arrisku usaina agertzen zen Atxabalpen. Partiduko aukera onenak euren izan zituzten, baina Mondrako defentsak lan ona egin zuen zapatuan, batez ere Markel. Jokalari hau, azken aldiak, partidu onak egiten dabil.

Bukaeran, merezitako berdinketa, beraz; eta ez da puntu txarra, Tolosa mailaz igotzeko favoritoetako bat da eta.

VARILLA JAUNA

Aipatzekoa da epaileak egindako lan txarra. Bi taldeendako ibili zen gaizki, baina lehen zatiko azken jokaldian kanpokoek Rubeni egindako penalti argi bat ez zuen adierazi.

## Lehen zatian jasotako gol batek ekarri zuen porrota

MUTRIKU  
**1-0**  
BERGARA

**Mutriku** | Bernabe, Arrotero, Pagoaga, Etxaburu, Lopez, Agirretxea (Bosque 89. min.), Zubiaurre, Azanza (Otxagabiarbero 70. min.), M. Arreitunandia (Txurruka 62. min.), Prieto (Mugerza 50. min.) eta Basurko (A. Arreitunandia 73. min.).

**Bergara** | Markel, A. Berraondo, Ormaetxea, A. Agirre (Elkorobereibar 45. min.), Lete, Oskar, Loiola (U. Agirre 86. min.), Alzola (Mujika 62. min.), Garin, Otero (Imanol 77. min.) eta Arana (Alejandro 56. min.).

**Golak:** 1-0 Prieto.

**Epailea:** Jose Antonio Belmonte. Ondo adierazi zituen jokaldiak.

A.G.

Beste aukera bat galdu zuen Bergarak Mutriku. Lau puntu ateratzen zizkion kostaldeko taldeak Bergarari eta zapatuko partiduarekin sailkapenean alde egin dutela esan daiteke. Andoni Azkargortaren esanetan, lehen zati txarra egin zuten eta orduan jaso zuten gola. Bigarren zatian, aukera batzuk izan arren, ez zuten asmatu golik sartzen.

JOKALARI BERRIAK

San Vicente eta Alejandro jokalariek denboraldi amaiera arte Bergaran jokatu dute. Aurreko aldean defizita dute bergararrek eta hori konpondu nahian ekarri dituzte bi jokalaria.



AITOR LIZARRALDE

Partidu bikaina jokatu zuten etxeok atzo.

## Ibarrako giro hotza bost golek berotu egin zuten

UDA  
**5-0**  
ZESTOA

**UDA** | Eriz, Sanchez, Erostarbe, Armentariz, Garcia, Saez (Vadillo 59. min.), Canas, Nuñez, Arriaga (Uribetxeberria, 70. min.), Igartua (A. Rodriguez, 66. min.) eta I. Rodriguez (Gonzalez, 68. min.).

**Zestoa** | Aranguren, A. Etxebarria, Ugarte, Diaz (Orbegozo, 65. min.), Quindos, Gernabarrena, Altuna, Zubimendi (J. Etxebarria, 57. min.), Uria, Aldalur eta Eizagirre.

**Golak:** 1-0 Arriaga. 2-0 Igartua. 3-0 Arriaga. 4-0 Arriaga. 5-0 Igartua.

**Epailea:** Igor Martinez. Ez zuen lan handirik izan.

lak, eta lehen gola berehala etorri zen, 7. minutuan, hain zuten.

Lehen zati guztia UDarena izan zen, eta hura izan zen partiduaren erritmoa eraman zuena. Berehala, bigarren gola etorri zen, eta lehen zatia amaitu aurretik hirugarrena ere sartu zuen.

BIGAREN ZATIAN ERE NAGUSI

Bigarren zatian ere, UDaren jokoa bakarrik ikusi ahal izan genuen. Zestoa ezer gutxi egiten ari zen, ezin ziolako UDako hamaikakoari aurre egin, eta markagailuko alde ere nahiko handia zelako.

UDak, zestoarren ezintasuna aprobeztatuz, beste bi gol egin zituen, eta gehiago egiteko aukerak ere izan zituen. Zestoa, ezinean, erraztasun gehiegi utzi zizkion etxeko taldeari; hauek behin eta berriz aritu ziren kontraerasoak egiten. Azkenean, merezitako garaipena UDarendako.

Jasone Zabala

Partidu bikaina jokatu zuen atzo UDak Zestoaren aurka.

Lehen minututik, irabaztera aterata ziren Felix Recioen muti-

## Berdinketa garrantzitsua Aloñarentzat Pasaian

PASAI  
**0-0**  
ALOÑA MENDI

**Pasai** | Orokieta, Lucas, Baselga, Lopez, Santos, Otxoa, Cestero (Agirre, 65. min.), Garcia, Seijas, Pikabea, eta Vidal.

**Aloña Mendi** | Elgarresta, Losada, Barrena, Martin (Arregi, 85. min.), Olabe, Moia, Garai, Sanchez (Idigoras, 65. min.), Albi-zu, Igartua (Aramendi, 75. min.) eta Biain.

**Epailea:** Javier Etxarri. Los Santos izan zen. Lan ona egin zuen. Ez zuen partidu bate-re zaila izan, baina lan pixka bat eman zioten jokalariek eta bi txartel hori ateratu zituen partiduan.

A.G.

Partidu parekatua jokatu zuten zapatuan Pasaia eta Aloña Mendik.

Hasieratik, Aloñak bere erritmoa ipini zuen, eta talde bezala sendo jokatu zuten partidu guztian. Defentsan ondo aritu ziren bi taldeak, atezainek lan gutxi izan zuten, eta joko gehiena zelai erdian egon zen.

BI ZATIAK BERDINAK

Lehen zatia eta bigarrena berdina izan ziren, bietan aukera gutxirekin. Partidua amaitzeko zegoela izan zuten aukera bana talde biek. Lehenengo aukera, Pasaiarena izan zen, burukada batekin; Aloñaren aukera berriz,



Puntu garrantzitsua oñatiarrendako.

Roberto Idigoras izan zuen, baina kanpora joan zen bere jaurtiketa. Puntu garrantzitsua beraz Aloñarentzat.

• SENIOR MAILAKO NESKAK (IGOERA FASEA)



ASTELEHENKO GOIENKARIA

**ALMEN UDA 1 - BETI ONA 2**

Ez zuten zorterik izan Aretxabaletako neskek zapa-tuan. Partidu txukuna jokatu zuten, eta momen-tu batzuetan partidua irabazi ahal izango zutela ematen zuen. Hala ere, kontrarioa oso gogorra zen, eta gainera Erreteriatik etorritako jarraitzaile-

en protestek epailearengan nahikoa eragin zuten. Horrela, kanpokoen bigarren gola jokoz kanpo gar-bi batean sartu zuten, eta epaileak ez zuen ezer adierazi. Lehen hiruren aurka jokatu dute aretxabaletarrek eta orain hasiko dute euren liga.

• GAZTEEN EUSKAL LIGA

**Zelaiaren nagusi izan arren, aukerak ez zituzten sartu**

ALOÑA MENDI	ELGOIBAR
<b>1-1</b>	

Jokin Etxebarria

Irabazteko partidu bat ezin izan zuten irabazi Aloña Mendiko gazteek, sortutako aukera askotan gola sartzeko gai izan ez zirelako.

Gauzak ez ziren ondoegi hasi. Bigarren minuturako Elgoibarrek gola sartu zuten, etxeko defentsak eta atezainak egindako huts bat ondo aprobe-txatuta. Baina hortik aurrera, Oñatiko gazteak gora etorri ziren, eta zelaiaren jabe eginez, aukerak sortzen hasi ziren. Baita gola egin ere 15. minuturako. Korner batean egin zuten gola etxekoek. Hala ere, ez zuten jakin izan hortik aurrera sortutako aukerak gol bihurtzen.

Bigarren zatia oso trinkoa izan zen. Ez zen joko politik ikusi. Oso geldo ibili ziren bi taldeak. Egia esan Elgoibarrek ez zuen gutxi egin zuten erasoan, eta etxekoek ere aukera gutxi sartu zituzten.

• 1. MAILAKO GAZTEAK

**10 jokalarirekin erraz irabazi zuen ligako talde onenak**

BERGARA	BURUMENDI
<b>3-0</b>	

A.G.

Partiduz partidu erakusten dabilta Abetxukoren mutilak ligan ez dutela euren mailako areriorik. Burumendi hirugarren postuan zegoen eta hamargarren minutuan Bergara jokalaria bat gutxiagorekin gelditu zenean, partidua itxura eska-sa hartu zuen. Hala ere, errealitateak kontrakoa erakutsi zuen. Ordurako 1-0 irabazten zihoan Bergara Leibarren gol bati esker. Lehenengo zatian ondo mantendu zuten markagailua eta bigarrean ligan lehen postuan dagoen taldea ikusi zen.

55. minutuan Leibarrek bere bigarren gola sartu zuen eta Burumendi taldeak besoak jaitsi zituen. 15 minutu berandua-go Salegik taldeko hirugarrena sartu zuen. Jakin genuenez, Martinek denboraldia gazteekin amaituko du. Atzo ere, bere maila erakutsi zuen jokatu zituen 20 minutuetan.

• 2. MAILAKO GAZTEAK

**Lehen zatian irabazi zuten antzuolarrek partidua**

ANTZUOLA	OIARTZUN
<b>6-1</b>	

Jasone Zabala

Partidu erraza izan zuten joan den zapatuan antzuolarrek. Oiartzun taldeak egin zuten bisita, eta aurkari ahula izan zen etxeko taldearendako.

Lehen zatian, gauzak ondo egiten hasi zen etxeko taldea, eta baloia abantaila nahiko handia zuela ikusita, intentsitatea jaitsi egin zuen, eta egoera hori aprobe-txatuz, Oiartzunek gol bat sartu zuen. Antzuolak berehala egin zuen seigarrena; amaieran ere izan zituen aukerak gehiago egiteko, baina horrela amaitu zen.

Bigarren zatian, berriz, hasi eta berehala, Antzuolak, markagailuan abantaila nahiko handia zuela ikusita, intentsitatea jaitsi egin zuen, eta egoera hori aprobe-txatuz, Oiartzunek gol bat sartu zuen. Antzuolak berehala egin zuen seigarrena; amaieran ere izan zituen aukerak gehiago egiteko, baina horrela amaitu zen.



**Ikusitakoak ikusita**

Jasone Zabala

**UDA TALDEAN GIRO NAHASIA BERRIZ ERE BARETZEN**

Bazirudien entrenatzaile aldaketa egin ondoren, UDA taldeko giro nahasia bere onera etortzen kostatzen egingo zela, Aloñaren aurka ere galdu ondoren. Baina asteburu honetan, entrenatzaile berriaren indarra nabaritu da. Zestoaren aurka beste jarrera batekin irten ziren zelaira jokalaria: 90 minutuetan presioa ondo eginez, talde bezala jokatu, eta aurrealdean, golak egiterako orduan, atean asmatuz. Ea ba, ederki hasitako bide berri hau, ongi amaitzen den.

**Emaitzak eta sailkapenak**

PREFERENTE MAILA		BESTELAKOAK	
Sailkapena	Punt. J.	Emaitzak	
1. Tolosa	53 26	Touring-Zarautz	0-2
2. Ordizia	53 26	Aretxabaleta-Zestoa	5-0
3. EHU	52 26	Pasaia-Aloña M.	0-0
4. Zarautz	46 26	Mondra-Tolosa	0-0
5. Real Union	42 26	Beti G.-Anaitasuna	4-0
6. Trintxerpe	41 26	Orioko-Real Union	3-5
7. Pasaia	36 26	Orioko-Real Union	3-5
8. Touring	35 26	Urola-Trintxerpe	1-1
9. Mondra	35 25	Ordizia-Hondarribia	3-0
10. Zestoa	33 26	Mutriku-Bergara	1-0
11. Orioko	32 26	Oartzun-EHU	0-2
12. Mutriku	32 25	<b>Hurrengoak</b>	
13. Hondarribia	31 25	EHU-Touring	
14. Anaitasuna	30 26	Zarautz-Aretxabaleta	
15. Aretxabaleta	30 26	Zestoa-Pasaia	
16. Aloña Mendi	29 26	Aloña Mendi-Mondra	
17. Urola	27 25	Tolosa-Beti Gazte	
18. Beti Gazte	26 26	Anaitasuna-Orioko	
19. Bergara	25 26	Real Union-Urola	
20. Oartzun	15 26	Trintxerpe-Ordizia	
		Hondarribia-Mutriku	
		Bergara-Oartzun	

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**

Sailkapena	Punt. J.	Emaitzak	
1. Tolosa	48 23	Alde Zaharra-Olarizu	1-4
2. San Inazio	48 23	Aloña Mendi-Elgoibar	1-1
3. Barakaldo	46 23	Lagun Onak-Eibar	5-2
4. Durango	41 23	Tolosa-Zugatarte	1-0
5. Aloña Mendi	39 23	Barakaldo-San Inazio	0-1
6. Eibar	37 23	Bermeo-Sporting H.	3-2
7. Zugatzarte	31 23	Amorebieta-Durango	1-3
8. Amorebieta	31 23	San Martzial-Zalla	2-1
9. San Martzial	31 23	<b>Hurrengoak</b>	
10. Zalla	28 23	Elgoibar-Olarizu	
11. Elgoibar	28 23	Eibar-Aloña Mendi	
12. Lagun Onak	28 22	Zugatarte-Lagun Onak	
13. Olarizu	24 23	San Inazio-Tolosa	
14. Bermeo	20 23	Barakaldo-San Inazio	
15. S. Herrera	19 23	Sporting H.-Barakaldo	
16. Alde Zaharra	7 22	Durango-Bermeo	
		Zalla-Amorebieta	
		Alde Zaharra-San Martz.	

**BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)**

Sailkapena	Punt. J.	Emaitzak	
1. La Salle	13 5	La Salle-Antzuola	4-1
2. Lasarte Oria	10 5	Amaroz-Zestoa	5-0
3. Urki	9 6	Donibane-Urki	2-3
4. Amaro	8 5	Lasarte Oria	Atsedena
5. Antzuola	7 5	<b>Hurrengoak</b>	
6. Zestoa	3 5	Antzuola-Amaroz	
7. Donibane	0 5	Zestoa-Donibane	
		Lasarte Oria- La Salle	
		Urki	Atsedena

**GAZTEEN OHOREZKO LIGA**

Euskalduna-Aretxabaleta	0-2
Eibartarrak-Mondra	1-4

**LEHEN MAILAKO GAZTEAK**

Bergara-Burumendi	3-0
Zestoa-Arrasate	5-0
Aretxabaleta B Ariz.-Orioko	1-2

**BIGARREN MAILAKO GAZTEAK**

Bergara-Gure Txokoa	2-0
Antzuola-Oartzun	6-1

**KADETEEN OHOREZKO MAILA**

Aloña Mendi-Beasain	3-2
Reala-Bergara	7-1
Texas Lasarte-Arrasate	2-1

**LEHEN MAILAKO KADETEAK**

Elgoibar-UDA Arizmendi	1-0
------------------------	-----

**BIGARREN MAILAKO KADETEAK**

Euskalduna-UDA Arizmendi	2-0
Bergara-Urki	7-1
Soraluze-Antzuola	3-7

**EMAKUMEZKOEN LIGA (IGOERA)**

Aloña Mendi-Añorga	0-2
Baskonia-Bergara	3-6
Almen Aretxabal.-Beti Ona	1-2
Mondra-Mutriku	b.b.

**EMAKUMEEN F-8 LIGA**

Zarautz-Bergara	4-5
Antzuola-Urki	0-1

**INFANTIL OHOREZKO MAILA**

Aretxabaleta Arizmendi-Lagun O. 1-1
-------------------------------------

**INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)**

Bergara-Amara Berri	6-1
Aloña Mendi-Urola	3-1

**INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)**

Amaiak Bat-Arrasate	0-2
---------------------	-----

**INFANTIL TXIKI (KOPA)**

UDA Arizmendi-Lengokoak	1-4
-------------------------	-----

**INFANTIL F-8**

Arizmendi C-Antzuola	3-5
Arizmendi B-Aloña M.	3-5
Bergara-Zumaiaiko	7-1

**ALEBINAK**

Aretxabaleta-Eibar	b.b.
Bergara-Arrasate	b.b.
Elgoibar-Aloña Mendi	b.b.

# Eskola kirola

BERGARA

## Eskubaloiak eta futbolak hartu zuten lekukoa 14. jardunaldian

*Aranzadin eta Ipintzan izan ziren eskubaloiko eta futboleko partiduak*

*Hurrengo astean, beharbada, polikiroldegian jokatu dituzte partiduak*

*Bi jardunaldi falta direnean, zehaztu gabe dago bukaera nolakoa izango den*

Jon Unamuno

Eguzkiak agurtu zituen oraingo honetan Bergarako neska-mutikoak eta ez da gutxi. Arazo asko izan dituzte negu honetan eguraldia dela eta. Hala ere, azkeneko bi jardunaldiak kiroldegian jokatze aukera ez dute alde batera laga nahi. Ikusiko da zer gertatzen den, izan ere asteburuan jendez gainezka egoten da kiroldegia.

Bestalde, gogotsu jokatu zituzten euren partiduak ikasleek. Eskubaloia eta futbola asko gustatzen zaizkie umeei eta ondorioz gaizki pasatzeko tarterik ez zuten izan. Gurasoak ere gustura egon ziren partiduak ikusten. Enkar, Tere eta Dorik esan zigutenez "astero etortzen gara seme-alabak ikustera".

### ZALANTZAN DAGO BUKAERA NOLA EMAN DENBORALDIARI

Gerturatzen ari da eskola kirolko denboraldi amaiera. Dagoeneko 14 jardunaldi jokatu dituzte eta beste bi gelditzen dira liga bukatzeko. Hala ere, kolokan dago amaieraren modua. Orain arte, Bergarako jaietan ospatu izan dituzte finalak. Aurtengoa, beharbada, beste amaiera modu bat egongo da, talde denak parte hartuko duten denboraldi amaiera bat. Bitartean, umeei dakitena egiten jarraituko dute: kirolaz gozatu.



AINTZANE AGIRRE

**Aranzadi 9.** Iñaki, Mikel A., Markel, Unai, Mikel L., Aritz, Xabi, Aitor, Aitzol eta Jon.



AINTZANE AGIRRE

**Elgeta.** Iñaki, Josu, Adrian, Enrike, Aitor, Mikel B., Markel, Ibon, Mikel G., Ander, Oskar eta Kepa.



AINTZANE AGIRRE

**San Martin B eta C.** Julen, Iker A., Unai, Ander, Jon, Maialen, Irati, Iker B. eta Kepa.



AINTZANE AGIRRE

**Mariaren Lagundia.** Jone, Olatz Z., Olatz A., Elena, Lorea, Nerea, Erika, Ane, Ainhoa, Aitana, Iraia eta Nerea.

### • HORRELA IKUSI DUTE GAZTETXOEK JARDUNALDIA



**ASIER, XABIER, UNAI, MARKEL |**  
ARANZADI IKASTOLA

"Gaurkoan eskubaloian jokatu dugu, baina gehien futbola gustatzen zaigu. Oso ondo pasatzen dugu eta taldekideak klasekoak izanda, elkarrekin denbora gehiago pasatzeko modu bat da".



**OLATZ, JULEN ETA ANA |**  
SAN MARTIN HERRI ESKOLA

"Astero etortzen gara gure anai-arrebak ikustera, baina badugu gogoak ere eskola kirolean aritzeko adina izan eta parte hartzeko".



**ANDONI, IKER ETA JULEN |**  
SAN MARTIN HERRI ESKOLA

"Gaur futboleko jokatu dugu eta gehien gustatzen zaiguna denez, oso ondo pasatu dugu. Dauden kirolez gain tenisa ere sartuko genuke eskola kirolean".



**MAITE ETA MIKEL |**  
ARANZADI IKASTOLA

"Saskibaloian eta futboleko sailkapenaren goialdean gaude eta badugu gogoak finalerako eguna iristeko. Frontonetan gustura jokatu genuke".



IRUDITAN



Oso gaztetxoak izan arren, jokaldi politak ikusteko aukera ere izaten da.



Hurrengo jokaldiko taktikak pentsatzeko momentuak ere badaude.



Eskubaloian funtsa: batzuk erasoan daudenean, besteak defentsan.



Kiroletarako ezinbesteko lan tresna.



Futbolagatik dagoen pasioak ez du adin mugarik ezagutzen.



Ze gustura edaten den tragoxka bat kirola egin ostean!



**IRAIA ETA ERIKA |**  
MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

“Pozik etortzen gara zapaturu eskola kirolera. Aste honetan eskubaloian egin dugu eta ondo pasatu dugu”.



**AMAIA, AINHOA ETA MIREIA |**  
ARANZADI IKASTOLA

“Gustora etortzen gara goizeko 09:00etan izaten denean izan ezik. Dauden kirolez gain, boleibola eta eskalada ere egingo genituzke”.



**ENEKO L., ANDONI ETA ENEKO Z. |**  
MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

“Gehien futbola eta saskibaloia gustatzen zaizkigu. Horrez gain, txirrindularitza ere sartuko genuke. Lagunartean ibiltzen gara eta oso ondo pasatzen dugu”.



**IKER, JON, AITOR, NERE, JOKIN, MIKEL ETA JON |**  
SAN MARTIN HERRI ESKOLA

“Futbol partidua jokatu dugu. Hala ere, ez dugu nahikoa izan eta oraindik gehiago jokatzen gelditu gara. Eskola kirolaren bitartez, zapatu goizak elkarrekin ondo pasatzen ditugu”.

• LEHENENGO NAZIONALA

# Azkeneko bi minutuetan alde egin zuen partiduak

*Hurrengo astean Zaragozan hil ala biziko partidua izango du Arrikruz Oñatiko Kobakek*



AITOR LIZARRALDE

Nahiz eta defentsak gogor jokatu, min asko egin zuen Rubenek Arrikruzten defentsan.

ARRIKRUTZ

**23-26**

LEGANES

**Arrikruz** | Biain, Galarza, Joseba (1), Zelaia (1), Jose Manuel (2), Rafa (2), Elgarresta (1), Gari (2), Perosterena (4), Fer-txu (2), Zurutuza, Eneko (7) eta Korkostegi.

**Leganes** | Ontorio, Bautista (3), Pinillo, Sergio (2), Ruben (9), Claudio (2), Saorin, Yejeva (1), Herrador (3), Feital (1), Enrique, Bueno (2) eta Israel (2).

**Golak bost minuturo:** 2-1; 4-2; 6-5; 7-8; 9-11; 12-12; 14-15; 17-17; 18-20; 20-20; 20-22; 23-26.

Jon Unamuno

Arrikruz Oñatiko Kobak taldeko jokalarik eta entrenatzaileen aurpegiek beldurra adierazten zuten partidua amaieran. Izan ere, etxeko partidua izanda, garai-pena lortu beharreko helburu moduan ezarria zegoen. Gainera, partidua amaitzeko lau minutu falta zirela, puntuak Zubiko-

an geldituko zirela zirudien, baina azkeneko emaitzak guztiz kontrakoa adierazi zuen.

Oso orekatua izan zen madrildarren kontra jokatutako partidua. Momentu batzuetan akats asko ikusi ziren bi taldeen aurrealdean. Arrikruzeko jokalariei batzuetan mugitzea kostatu zitzaizen eta horrela zaila zen gola sartzea. Hala ere, nahiz eta prestatutako jokala-

diekin ez izan, markagailuari eustea lortu zuten.

## AMAIERA ARTE BERDINDUA

Bost minutu falta zirela bi golen errenta lortu zuten kanpotarrek eta partidua asko zaildu zen. Hala ere, etxekoen erreakzioa heldu zen momentu hartan eta Eneko-ren bi golekin partidua berdindu zuten. Bi minutu gelditzen

ziren eta bai jokalariek bai zaleak irabazteko gosez zeudela ikusita, kanpoko entrenatzaileak hutsartea eskatu zuen.

Rubenek Leganesendako gola sartu zuen eta hurrengo jokaldian baloia galdu zuten etxekoek. Gainera, jokalarik bat gutxiagoz gelditu ziren eta beste bi gol jasotzeko denbora egon zen. Zaragozan aukera bakarra dago, irabaztea.

• LEHEN TERRITORIALA



AITOR LIZARRALDE

## AGR ARRASATE 31 - LEIZARAN 22

Beste garaipen bat lortu zuten zapatuan AGRkoek. Lehen zatian bi goleko abantailarekin bukatu zuten arren, ez zuten ondoegi jokatu etxekoek. Gauzak azkarregi egitea nahi zuten, eta hori dela eta, bost edo sei kontraeraso garbi galdu zituzten, atsedenaldira abantaila handiagoarekin joateko aukera galduz. Hala ere, defentsako lana oso ona izan zela aipatu behar da. Atsedenaldira gauzak argitu zituen Arando entrenatzaileak eta bigarren zatian askoz ere hobeto jokatu zuten etxekoek, bederatziko goleko abantailaz irabaztea lortu arte.

• GAZTE NESKAK



AITOR LIZARRALDE

## BERGARA 23 - ARRASATE 2

Gatz askorik gabeko derbia ikusi genuen zapatuan Bergaran, Labe-garrietako kiroldegian. Etxeko taldea guztiz nagusitu zitzaion Arrasateko taldeari. Lehen zatian Bergarak hobeto jokatu zuen, eta 11 gol sartu zituen; arrasatearrek, berriz, lehen 30 minutuetan ez zuten golik egin. Bigarren zatian, gauzak ez ziren asko aldatu. Arrasatearrei asko kostatzen zitzaizen baloia mugitzea, eta lehen gola bigarren zati honetako zazpigarren minutuan egin zuten; bigarrena amaieran. Garaipena etxekoendako izan zen.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

## Partidu on batean ezin irabazi Bergarak

ERROMO

**26-24**

BERGARA

A.G.

Partidu ona jokatu zuen atzo Bergarak Bizkaia aldean.

Erasoko jokoan eta batez ere defentsakoan, ederki jardun zuten aspaldiko partez. Partidua berdinduta joan zen.

Hasiera batetik, Erromo taldeak defentsa berezia egin zion Bergarako taldeari, eta Landerren mutilei kostatzen zitzaizen erasoko jokaldietan gola egitea.

Bigarren zatian epailea zorrotzegi aritu zen, batez ere bergararrendago, eta bigarren zati ia guztia bost jokalarirekin jokatu behar izan zuten ibarreko jokalariek. Azkenean bi golegatik galdu zuten.

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

#### LEHEN MAILAKO ESPAINIAR LIGA

Arrikruz Oñati-Leganés 23-26

#### SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

Erromo-Bergara 26-24

#### LEHEN TERRITORIALA

AGR Arrasate-Leizaran 31-22

#### BIGARREN TERRITORIALA

BKL CAF-Arrasate 21-25

Pulpo-Aloña Mendi 32-37

Urola-Bergara 22-27

#### SENIOR MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Askartza-Verkol Aloña 22-24

#### GAZTE MAILAKO MUTILAK

Gatz Museoa Jakion-Urola 24-24

#### GAZTE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Ermua-Verkol Aloña 24-13

#### GAZTE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Bergara-Arrasate 23-2

#### KADETE MAILAKO MUTILAK

Elgoibar-Aloña Mendi 26-29

Egia Juggers-Bergara 33-38

#### KADETE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Ermua-Verkol Aloña 28-25

#### INFANTIL MUTILAK

Arrasate-Pulpo 13-29

Aloña Mendi-Legazpi 23-19

#### INFANTIL NESKAK

Aloña Mendi-Pulpo 28-10

• LEHEN MAILA

# Hirugarrenari erraz irabazi Mugarrik

*Gatzik gabeko partidua izan zen zapatukoa. Kanpokoak sei jokalarirekin etorri ziren eta etxeok ez zuten partidu ona jokatu*

MUGARRI ALKESA

96-80

PADURA

**Mugarri Alkesa** | Gamarra (26), Domingo, Mallabiabarrena (16), Mikel Biain (8), Basauri (2), Herzog, Kintana (14), Alarcia (9), Aranburu (6), Iñigo Biain (14) eta Isasa (2).

**Padura** | Cabello (31), De Juan (8), Nieva (3), Aitor Arenas (3), Madariaga (21) eta Aldekoa (14).


**Laurdenetako emaitzak:** Lehen laurdena: 25-16. Bigarren laurdena: 47-41. Hirugarren laurdena: 75-57. Laugarren laurdena: 96-80.

garrenak dira, eta zapatuan irabazten bazuten igoera faserako sailkatu ahal izango ziren. Baina kanpokoak sei jokalarirekin bakarrik etorri ahal izan zuten, min hartutako jokalaririk asko zuten eta. Horrek partidua asko baldintzatu zuen. Izan ere, defentsan ezin izan zuten kanpokoek gehiegi estutu, eta etxeok hori ongi aprobetxatu zuten puntu asko sartzeko.

Arrasatearrak partidu guztian zehar markagailuan gainetik ibili ziren, baina honek asko lasaitu zituen jokalariek. Eta horrek, normalean, ez du gauza onik ekartzen.

## LEHEN LAURDENA ONDO

Lehen laurdena ondo hasi zuten etxeok. Defentsan nahiko sendo eta erasoan fin. 15 puntuko abantaila lortu zuten segituan, baina hori ikusita eta kanpokoak sei jokalarirekin etorri zirela jakinda, Zurutzaren mutilak asko erlaxatu ziren. Kanpokoek erasoan beren lana txukun egiten jarraitu zuten eta lau puntutara hurbildu ziren. Orduan, estuasuna handiagoa izan ez



AITOR LIZARRALDE

Taula azpian erraz nagusitu ziren arrasatearrak.

zedin, berriz ere hasi ziren Mugarri Alkesakoak jokatzeko, eta gutxika-gutxika abantaila berriz handitu zuten. Bigarren laurdenean baina, lehenean egindako huts berdina egin zuten: gehiegi lasaitu, eta atsedenera abantaila txikiarekin heldu ziren.

Bigarren zatia lehenaren kalera izan zen. Kanpokoak markagailuan gerturatzen ziren bakoitzean, etxeok, taula azpian nagusi

si zirela ikusita, Iñigo Biain eta Ander Mallabiabarrenarekin jokatzeko zuten, eta hauen lan onari esker eta Gamarrak sartutako puntuak esker abantaila handitzen zuten. Baina berehala etortzen zen lasaitasuna. Hala ere, azken minutuetan gutxika-gutxika abantaila handitzea lortu zuten arrasatearrek, eta 19 puntuz irabazteaz gain, basketabera ere alde utzi zuten Padura taldearekiko.

# Bergarak ezin defentsarekin

CANDY BERGARA

75-86

LASARTE

**Candy Bergara** | Murillo (17), Gonzalez (6), Hernandez (15), Morais (15), Arteaga (3), Blazquez (2), Beistegi (3), Ugarte, Alonso (4), Iñarra (4), Larrañaga eta Eraña (6).

**Lasarte** | Tome (11), Gonzalez (22), Mendez, Baltasar (16), Fraile, Montejo (8), Azpiroz, Salagre (21) eta Felipe (8).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena: 22-27. Bigarren laurdena: 13-18. Hirugarren laurdena: 14-19. Laugarren laurdena: 26-22.

Jasone Zabala

Joan den zapatuan, Candy Bergara taldeak Lasarte izan zuen aurkari.

Partidua indar handiz hasi zen, batez ere etxeokoen aldetik, eta hasieratik ikusi zen, kontrerasoko jokoa aprobetxatu behar zela, lasartearrek, altuera bai, baina azkartasunik ez zutelako.

## ZONAKAKO DEFENTSA

Kanpotarrak, zonakako defentsan jarri ziren hasiera hasieratik, eta behin eta berriro saiatu ziren jokoa moteltzen bergararren kalterako. Egoera honek ez zien utzi David Urbinak zuzentzen duen taldekoei beren jokoa



AITOR LIZARRALDE

Partidu guztian atzetik joan ziren arren, saiatu ziren etxeok.

egiten, eta partidu guztian atzetik joan ziren. Lasartek barruko joko indartsua zuen, bai erasoan eta baita defentsan ere, eta behin eta berriz beraien jokoa barrutik egin zuten.

Bergararrak saiatu ziren, baina Lasartek, ordurako, abantaila handia lortu zuen markagailuan. Azkenean, gehiago merezi izan zuten arren, ezin izan zuten garaipena lortu.

## Gorabeherak

### GORA

#### Ander Mallabiabarrena eta Iñigo Biain

Taula azpian erraz nagusitu ziren Mugarri Alkesako bi pibotak. Taldeak behar izan zituenean hor egon ziren puntuak sartzen eta errebo-teak hartzen. Jokalari oso baliotsuak dira Arrasateko taldean, eta ondo jokatzeko dutenean ederki igartzen da. Zapatuan, taldekideek bezala, nahiko erlaxatuta jokatu zuten, baina Padurakoak baino pibot hobeak direla erakutsi zuten, eta partiduan sartu zirenean, etxeok taldeak abantaila handia lortu zuen.

#### Mugarri Alkesako gazte mailako jokalariek

Asteburu honetan erraz irabazi eta gero, denboraldi hasieran zuten helburu nagusia bete dute: lehen mailara igotzea. Denboraldi bikaina egin eta gero, lehen mailara igotzen diren hamar taldeen artean sailkatu dira arrasatearrak.

### BEHERA

#### Mugarri Alkesakoen erlaxazioa

Markagailuan abantaila handia zutela ikustean, eta kanpokoak sei jokalarirekin bakarrik etorri zirela jakinda, Gorka Zurutzaren mutilak gehiegi erlaxatu ziren partiduan. Normalean horrek fruitu txarrak ekartzen ditu; hala ere, zapatuan ez zen horrela izan. Errekeionatzen jakin zuten arrasatearrek, baina hurrengo partiduetan kontuz ibili beharko dira, azken txistua entzun arte partidua ez dira eta bukatzen.

## Emaitzak

### MAILAZ MAILA

#### LEHEN MAILA

Mugarri Alkesa-Padura 96-80

#### SENIOR MAILAKO

##### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Candy BKE-Lasarte Basket 75-86

Gabi Jatetxea-Aloña Mendi 48-51

#### GAZTE MAILAKO

##### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Goierri CAF-Mugarri Alkesa 31-66

Aloña Mendi-Easo C 26-39

Zarautz-Araneta 38-68

#### KADETE MAILA

Zarautz-Lacor 104-51

Andraitz-Aloña Mendi 47-52

Internacional-Mugarri Alkesa 58-78

#### NESKEN BIGARRIN MAILA

Eskoriatza Atsedena

#### GAZTE NESKAK

Aloña Mendi Atsedena

Eskoriatza Atsedena

#### KADETE NESKAK

Bergara-Bera Bera 33-38

Eskoriatza-Loyola 45-19

Jon Odriozolak, hamar urte profesional bezala eman eta gero, bizikletatik jaistea erabaki zuen. Baina ez du bizikleta mundua utzi, *Kontinental mailako* Orbea taldeko

zuzendaria da eta. Helburu bezala, berak Italian emandako urteetan ikasitakoa bere mutilei erakustea dauka 35 urteko oñatiar honek, eta ilusioz gainezka dago proiektu

berri honekin. *UCI pro Tourrak* zerbait aldatuko duen ez daki, baina *Tourra* irabazteko berriz ere Armstrong jartzen du faborito bezala txirrindulari ohia.

**JON ODRIOZOLA** | TXIRRINDULARI OHIA ETA ORBEA TALDEKO ZUZENDARI BERRIA

# “Bizikletan emateko nuena baino gehiago emango dut mutilekin”

Jokin Etxebarria

**Hamar urte profesionalean eman eta gero, nolatan hartu zenuen erretiratzeko erabakia?**

Egia esateko, nahiko arraroa izan zen. Izan ere, beste urte bat korritzen ibiltzea pentsatuta neukan. Baina, Orbeakoak etorri ziren nire bila aukera honekin, proiektu berri honetan zuzendari bezala jarduteko. Eta berehala konturatu nintzen oso aukera polita zela, bizikletan emateko nuena baino gehiago eman nezakeela nire ardurapean egongo diren mutilekin.

Gainera, proiektua nolakoa den ikusita, uste dut niretzat ere aurrera begira askoz ere interesgarriagoa izango dela.

**Beraz, proiektua izan zen konbentzitu zintuena, ez?**

Bai, bai, jende gaztearekin lan egitea, erakustea zer den mundu hau... txirrindularitza ez baita bizikletan ibiltzea bakarrik; edukazioa, irudia, gauzak nola egin jakitea ere bada txirrindularitza. Azken finean, Italian ikasi nuen guztia mutilei erakustea ahalbidetzen dit proiektu honek. Eta hemendik urte batzutura ikusiko da zer nolako lana egin duan. Profesional onak irteten badira, nire lana ona izan delako seinale izango da.

**Beraz, ilusioz gainezka zaude.**

Bai, baina ez ni bakarrik, talde osoa berdin dago. Aramendi medikuak ere asko sinisten du proiektu honetan, eta bera bezalako mediku batek, txirrindulari munduan ospe handia duenak, gure proiektuan sartu nahi izanak asko pozten nau. Hau proiektu polita delako seinale da. Gainera, oraingoz bi lasterketa egin ditugu, eta gure mutilak oso ondo ibili dira.

**Erretiratzeko pausoa eman bai, baina ezin bizikleta mundua utzi?**

Ez. Nik ez dut erretiro bezala ulertzen. Aurrerapauso bezala hartzen dut. Horregatik nago pozik. Zaila da txirrindularitza

utzi, eta gainera zure ibilbidean pauso bat aurrera ematea, eta niretzat hori da proiektu hau: pauso bat aurrera.

**Bizikletatik autora; diferentzia igarriko zenuen, ez?**

Bai, diferentzia handia. Beste borroka bat da. Orain burua beti okupatuta daukazu, gauza bat dela edo bestea dela; eta lasterketa barruan ere, oso ezberdin ikusten duzu dena. Bizikleta gainean, bakarrik pedalak eman, sufritu, eta aurrera bota beharra dago. Eta orain, autoan, asko sufritzen da, baina txirrindulariak ikusten. Beste sufrimendu mota bat da, beste erresponzabilitate bat, zeharo ezberdina da dena.

**Eta non gusturago?**


Bizikletan ondo zabiltzanean, zuk egindako lan horrek oihartzun handiagoa du. Eta orain, sentitzen dut, nire mutilak bizikleta gainean doazela, baina ni ere eurekin noala. Izan ere, nik aukeratu ditut taldeko mutil hauek, eta ia-ia euren barruan sentitzen naiz.

**Euskaltelen harrobia izango zarete aipatu duzue.**

Azkenean, Madariagak ere gure alde egin zuen apustua, eta euren laguntza daukagu. Beraz, nire lana izango da euren jendea prestatzea. Gainera, gehienak euskaldunak dira.

**“Italian ikasi nuen guztia mutilei erakustea ahalbidetzen dit proiektu honek”**

**“Oraingo lana ez dut erretiro bezala ulertzen. Aurrerapauso bezala hartu dut”**



Jon Odriozolak zuzentzen duen taldeko autoaren aurrean egin zigun harrera.

AITOR LIZARRALDE

**Eta zein da zuen helburu nagusia aurtengo denboraldirako?**

Azken finean talde guztiek dutena. Mutilek lan ona egitea errepidean, irudi ona ematea, eta norberaren izena ahalik eta altuen uztea. Eta garaipenak etortzen badira askoz hobeto. Eta

**“Bizikletan ondo zabiltzanean, zuk egindako lan horrek oihartzun handiagoa du”**

**“Madariagak ere gure alde egin zuen apustua, eta Euskaltelen laguntza daukagu”**

gero, talde bezala, *Etorkizuneko Tourrean* lan ona egitea espero dugu. Kontuan hartuta gure filosofia, aproposa delako guretzat. *Euskal Bizikletan* ere ondo ibili beharko dugu. Nahiz eta itzuli handi bat den, etxean korritzen dugu eta.

**UCI pro Tourrak zerbait aldatuko ote du txirrindularitzan?**

Hori oraindik inork ez daki. Gauza berri bat da, denak galduta gaude, eta datorren urtera arte ezin izango dugu ikusi aldaketarik gertatu den. Egia esateko, apustu berri bat da, eta denborak esango du zer-nolako aldaketa eragiten duen.

**Armstrongek Tourra irabaziko ote du berriz?**

Gustatuko litzaidake Mayok edo Belokik irabaztea, baina bera da faborito nagusia, berak irabazi duela sei aldiz. Lehen errekorra bilatzen ibili zen, orain ez da errekorrik eta beste interes puntu batzuk bilatu beharko ditu.

## Ibarreko txirrindulariei laguntza

Markel Irizar da gaur egun gure ibarreko txirrindularien artean profesional bakarra. Baina gurean badaude txirrindulari eskola eta talde ugari. Lana franko egiten da talde hauetan, baina profesionalek saltoa egitea zail egiten da. Jon Odriozolari horri buruz galdetzerakoan hurrengo erantzun zigun: “Ni saiatuko naiz orain txirrindulari hauei laguntza ematen. Gure helburuetako bat hori da, jende gazteari laguntzea”.

nolako ikasketak,  
halako lana\*

\* **Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak** egindako ikerketaren arabera, **MONDRAGON UNIBERTSITATE**an ikasitako en %90,7ak bere ikasketekin bat datorren lanpostua lortzen du; eta gainera, batz bestek bi hilabeteren buruan.

**m**  
**MONDRAGON**  
**UNIBERTSITATEA**

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Megadeth taldeak Jam aretoa bete egin zuen eguenean egindako kontzertuan | 24
- Tolerantziaren gaineko antzezlanaren egin zuen umeen Hankatxo taldeak Oñatin | 25

Nartxi Azkargortarekin 'Los Lunnis' saioaz eta han egiten duen lanaz jardun dugu | 26

**NATALIO MAIZTEGI GOGOAN**



AINZANE AGIRRE

Dantza ikuskizunak amaitu ostean, dantzalekua ireki zuten guztiendako eta *rueda kubana* dantzatu zuten bertaratutako guztiak.

**DANTZA IKUSKIZUNA** | BILBO, IRUÑEA, GASTEIZ ETA DONOSTIAKO DANTZA ESKOLETAKO DANTZARIAK ELKARTU ZITUZTEN OÑATIN

## Omenaldi berezi eta hunkigarria egin zioten lagunek Natalio Maiztegi zenari

*Iaz hasi ziren prestaketa lanetan eta omenaldi bikaina antolatu zuten Natalio Maiztegi zenaren lagunek. Dantzarako zaletasuna piztuarazi zienari dantza egin zioten*

Marijo Deogracias

Arratsaldeko 16:30ean zen hasitekoa, baina ordu horretan jendea oraindik sartzen ari zen Oñatiko Zubikoa kiroldegira. 350 bat lagunek hartu zuen eserlekua kiroldegian Natalio Maiztegi zenari bere lagunek eskaini zioten omenaldi-ikuskizuna ikusteko. Hamasei taldek jardun zuten ia ordu bi iraun zuen saioan.

Urduritasuna nabari zen hasierako minutuetan. Aurkezleek ahotsa dardarka izan zuten, batez ere laguna zenaren izena aipatzen zuten bakoitzean. Hala ere, sentimenduz beteriko dantza saioa eskaini zuten eta dantza maite dutenen arteko "mun-

dua ezagutzeko" aukera ekarri zuten. Manu Cruz aritu zen aurkezle lanetan. Berari tokatu zitzaion hara elkartutakoei ondo etorria ematea eta baita Oñatiko alkate Andoni Garciarekin batera, Natalioren gurasoei lora sorta eta plaka oroigarria ematea. Andoni Garciak gogoratu zenez, "emozioak, elkartasunak, sentimenduak, adiskidetasunak eta oroitzapenek batu gaituzte hona eta ez dezagun utzi belarra hazi dadin adiskidetasunaren bidean".

**GOI MAILAKO IKUSKIZUNAK**

Hamasei dantza taldek parte hartu zuten dantzaldian. Zubikoa kiroldegia dantzaleku bihurtu zuten guztien artean. Dantza egi-

ten lehenengoak Natalioren lagunak izan ziren eta lau bikotek *El bailarin se ha marchado, sus pasos quedan* doinuarekin *rueda kubana* bat dantzatu zuten.

**350 bat lagunek hartu zuen eserlekua Zubikoa kiroldegian**

**"Nataliori gehien gustatzen zitzaion dantza mota salsa zen"**

Handik aurrera, sevillanak, salsa saioak, tangoak... Guztiguztiak ondo landutako koreografiak izan ziren, antolatzaileek esan zigutenez, "dantza eskoletatik erakustaldiak egiten aritzen diren dantzariak ekarri nahi izan ditugu". Eta, a ze nola erakustaldiak! Iruñeko Merakumbe taldeak oihan batean ekin zioten dantzari eta bat-batean artaziak han eta hemen ikusteko aukera izan genuen.

Dantzari gazte eta helduak aritu ziren eta bakoitzak salsa bere gustuetara egokituta egin zuen dantza; izan ere, "Nataliori salsa zen, agian, gehien gustatzen zitzaion dantza" eta horregatik, agian, ikusi genituen hainbeste salsa saio.

NATALIO MAIZTEGI GOGOAN

MANU CRUZ | DANTZAZALEA ETA NATALIO MAIZTEGI ZENAREN LAGUNA

# “Edonori dantza egiten irakasteko prest zegoen beti”

Marijo Deogracias

**Natalio Maiztegi zena laguna zuen. Dantza irakaslea eta laguna. Sei urtez jardun zuten Manuk eta emazteak Natalioren ikasle legez; batzuetan laguntzaile lanetan ere aritu behar izan zuten dantza erakustaldietan. Orain urtebete hil zen lagunari omenaldia prestatzen aritu da Manu.**

**Zergatik nahi izan diozue omenaldia egin Natalio Maiztegiari?**

Hasteko, merezi duelako eta horrez gainera, berarekin dantza egin dugun askok gogoan izan dugun zerbait izan delako. Emazteak eta neuk hartu dugu antolaketak gure gain, baina leku askotako dantzazaleek lagundu digute.

**Lan handia izan duzue omenaldia-ri forma ematen?**


Azaroan hasi ginen ideia-ri forma ematen. Hainbat dantza akademietako lagunekin egon gara, bai eta dantza egiteko elkar-tzen garen lagunekin ere, eta guz-tion artean antolatu dugu. Natali-orekin hartu-eman estuena izan genuen lau bikotek La sonora Carrusel taldearen *El bailarín se ha marchado, sus pasos quedan* abestiarekin dantza egitea pentsatu genuen, horixe izan baita Nataliok egin duena.

**Bere ikasle izan zineten emaztea eta zu.**

Sei urtez aritu ginen bere dantza eskoletara joaten. Hala ere, irakasle bai, baina laguna ere bagenuen Natalio. Zerbait utzi badigu berak, dantzarako zale-tasunaz gainera, dantzari esker jendea ezagutzeko eman digun aukera izan da. Jende asko ezagutu dugu dantzari esker eta horregatik lortu dugu omenaldian hainbeste jendek parte hartzea.

**Nola gogoratzen duzu Natalio?**

Pertsona ona eta atsegina zen. Edonori dantza egiten irakasteko



M.D.

“Leku askotako dantza zaleek lagundu digute omenaldian”

“Dantzarako zale-tasuna eta jendea ezagutzeko aukera utzi zizkigun Nataliok”

prest zegoen beti. Gutxitu fisiko-ei, erretiratuei... Dantzarako zale-tasuna pizten zuen.

**Hainbeste denboran ikasle eta noiz hasiko zara irakasle?**

Gustatuko litzaidake. Eskaini izan didate, baina, oraingoz, ez dut astirik. Iritsiko da horretarako eguna. Lehen ere, Natalio afoniko egoten bazen, dantza aginduak nik abestea tokatu izan zitzaizkidan erakustaldiretan batean.

**Dantza egiten jarraitzen duzu?**

Bai. Askotan elkartzen gara dantza egiteko, baina tamalez ez dago horretarako leku askorik.

• DANTZA ZALEEN IRITZIAK



YOLANDA ETA CARLOS | ARRASATE

Yolandak dantza eskolak hartzen dituela aitortu zigun eta “dantzak gustatzen zaizkidalako etorri naiz. Dantza ikuskizunarekin asko gozatu dugu biok”. Carlos, senarrak, ez da dantza eskoletara joaten, baina “agian, hau ikusita animatuko naiz”.



GERARDO ETA NIEVES | ARRASATE

Arrasatekoak izanik Natalio ezagutu zutela esan ziguten senar-emazteek. “Gure irakasle izan zen Natalio. Arrasaten eskolak ematen hasi zenean bere ikasle izan ginen eta hartu-eman polita izan genuen berarekin”.



JESUS ETA ROSARIO | ERMUA

Biek dantza eskolak hartzen dituztela esan ziguten: “urrian hasi ginen dantza eskolan, Ermuan. Asko gustatu zaizkigu dantza saioak. Goi mailako dantzariak ikusi ditugu eta ikustera jende asko etorri da; ia Ermuan ere horrelakorik antolatzen dugun”.

• ZUBIKOA KIROLDEGIAN EGINDAKO NATALIORI OMENALDIAN IZANDAKO UNE BATZUK



**IXILUNEA.** Omenaldia hasi aurretik minutu bateko isilunea egin zuten dantza egitera etorri ziren dantzari guztiek, antolatzaileek eskatuta. Guzti-guztiak inprobisatutako dantzalekura deitu zituzten Manuk eta han egon ziren Natalioren argazkiak atzean zituztela, minutu batez.



**NATALIO GOGOAN.** Natalio Maiztegi 34 urterekin hil zen, iaz. Dantza eskolak eman zituzten urte askotan eta Oñatin izan ziren bere ikasle asko.



**DANTZELEKU INPROBISATUA.** Gasteizko Alejop dantza eskola-koek *La Mascara* filmako koreografia egin zuten. Ikuskizun dibertigarriena izan zen. Dantzariak moztortuta eta antzetzten aritu ziren.

MEGADETH ETA DIAMOND HEAD | JAM ARETOA BETE EGIN ZUTEN EGUENEAN EMANDAKO KONTZERTUAN

# Rock gogorra maite dugunok gau bikaina bizi izan genuen egunean

*Ikusleek 80. hamarkadako trashmetalaren urrezko garaira egin zuten jauzi, Dave Mustaine lagun zutela*

Gaizka Vitoria

Iluntzeko 20:30ak pasatxo hasi zen emanaldia. Aretoa lepo eta entzuleak irrikan. Diamond Head taldeak ireki zuen gaua, 80. hamarkadako Ingalaterran eman duen talde heavy onenatarikoak. Seguru asko Dave Mustainek berak ere garai hartan gustuko zuen taldea da. Metallica taldearena ere bai, horren adibide kontzertu askotan jo izan dituzten Diamond Head taldearen *Am I Deable?* eta *Helpless* abestiak. Eguenean Jamen egindako kontzertuko unerik gogoangarriena ere bi abestiok jo zutenekoa izan zen.



AINZANE AGIRRE

## MEGADETH, LUXU BAT

Dave Mustainek ez zuen ahotsa ondo baina klasea soberan du, eta ahots urratuarekin bi ordu joko zituztela iragarri zuen; motzak egin zitzaizkidan.

Mustainen itxura beldurgarria zen, infernutik zuzen zuzenean etorritakoa zirudien: aurpegia ilearekin guztiz estalita, gezi formako bere gitarra, betiko posea... denok buruan genuen Dave Mustaine zen aurrean genuena. Hala, 80. hamarkadako urrezko Trashmetal garaietara itzuli ginen.

Luxu bat izan zen Megadeth, Jam aretoan ikustea, nahiz eta,

Mustaine taldekide berriekin etorri zen: Drover anaiak eta Iced Earth taldeko James Macdonough baxua.

kantaria ez egon bere onenean. Berarekin zetozen hiru musikariak bikainak dira eta Mustainek berez duen klase eta karismarekin kontzertu bikaina egin zuten.

Ezagunak dira Mustainek duen izaera gogorra eta berarekin jo duten musikariekin betidanik izan dituen arazoak. Bada, egunean ere taldekide berriekin etorri zen: Drover anaiak, -Glen gitarran (bikaina) eta Shawn bateria erraldoian- eta Iced Earth taldeko James Macdonough baxuan. Lan bikaina egin zuten,

baina uneoro argi eta garbi izan genuen nor zen buruzagia.

Azkeneko diskoetako abestiak eta klasikoak nahastu zituzten, taldeak ibilbide osoan izan

Dave Mustaine musikariak ez zuen ahotsa bere onenean, baina klasea soberan du

duen koherentzia eta kalitatea argi eta garbi utziz. Baina klasi-koekin tenperatura goraino igo zen, *Wake up Death*, *Hangar 18*, *Holy Wars* edo *Symphony of Des-*

Taldeak ibilbide osoan izan zuen koherentzia eta kalitatea garbi erakutsi zuten

*truction* beste batzuen artean. Kanpoan zegoen hotza bezalako berotasuna zegoen barruan.

Aipatzekoak *Peace Sells* klasikoa ardatz zutela egindako nahasketan jo zuten *The four Horseman* -Mustainek James Heatfieldekin Metallica zegoela konposatu zuen abestietako bat- eta Black Sabbathen *Paranoid* klasikoa.

Eguenekoa Dave Mustaine ikusteko azkeneko aldia izan zela diote, baina belar txarra ez da berehala galtzen.



**Erosten jakin:**  
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

**EROSKI**  
Grupo Eroski Erosten jakin



TXISTULARIEN KONZERTUA OÑATIN | ORDUBETEKO EMANALDI DOTOREA ESKAINI ZUTEN OÑATIN ELKARTUTAKO 40 BAT TXISTULARIK

# Txistua dantza eta kantuarekin uztartu ditu aurten Aita Madina taldeak

*Oñatiko metal boskotea, abesbatza eta Oñatz dantza taldea lagun izan zituzten txistulariek*

*Hamaika herritako txistulariak elkartu ziren Oñatin ia urtero egiten den emanaldirako*

Larraitx Zeberio

Euskal musika entzun zuten zapatu gauean Oñatiko Zubikoa kiroldegira bertaratu ziren ehun eta berrogei bat lagunek. Ordubeteko emanaldia izan zen eta txistuak protagonismo argia hartu zuen.

Lander Diaz de Gereñu oñatiarraren zuzendaritzapean, Salaberriren *Gurea da* piezarekin eman zioten hasiera kontzertuari Zubikoako pilotalekuan elkartutako berrogei txistulariek.

Txistularien arten, lehenengo eta bigarren ahotseko txistuak, silboteak eta atabalak zeuden. Zapatuko emanaldian, ordea, jaso zuten laguntzarik txistulariek eta Oñatiko musika bandaren metal boskoteak zein Oñati abesbatzak euren lekua izan zuten txistularien kontzertuan. Oñatz dantza taldeko dantzariak ere bertan izan ziren; bizpahiru aldiz arin dantzatu zuten eszenatoki gainean.

## TXISTULARI ORDEZKARITZA ZABALA

Oñatiko txistulariendako festa egun handia izan zen zapatua. Herritarren aurrean luzaroan prestatutako emanaldia eskain-

tzeaz gain, inguruko herri askotatik etorritako txistulariei harre-  
ra egin zieten. Arrasate, Eibar, Aramaio, Elgoibar, Legazpi, Urretxu, Segura, Zegama, Elorrio eta Antzuolako txistulariak elkartu ziren zapatuan Oñatin.

Emanaldi trinkoa eta atsegina izan zen bai musika adituendako zein, besterik gabe, herriko musikarien emanaldia ikustera gerturatu ziren ikusleendako ere.

Ekitaldi amaierarako hiru kantu aukeratu zituen Gereñuk, tartean publikoari asko gustatu zitzaion *Gernikako arbola*.

Txistu kontzertua ikuskizun bilakatzen asmatu du Lander Gereñuk aurten

Txistulariek euskal kantuz osaturiko egitaraua eskaini zuten publikoaren gozamenerako



Dantza, kantua eta musika ikuskizuna izan zen 23. txistularien kontzertuan.

AINZANE AGIRRE



Hainbat lekutatik etorritako txistulariak elkartu ziren Oñatin zapatuan.

AINZANE AGIRRE



## BIG BAND | ARRASATE MUSIKALEKO TALDEA, ESPALOIAN

Jende asko gerturatu zen emanaldira; asko, jende ugari zutik geratzeraino. Arrasate Musikaleko Big Bandaren doinuak entzutera joan ziren. Dantzarako erritmo ezagunak, asko filmetan entzundakoak, eskaini zituzten ordubete pasako saioan. Saxoak, tronboiak, tronpetak, pianoa, gitarra, baxua eta perkusioarekin batera Amaia Arriaranen ahotsarekin gozatu genuen. Bukaeran bi kantu errepikatu behar izan zituzten. | I.A.



## ANTZERKIA | TOLERANTZIA, 'XOMORRO' ANTZEZLANAREN IKASGAIA

Umeendako antzezlan dibertigarria ekarri zuen atzo, domeka, Oñatira Hankatxo antzerki taldeak, *Xomorro*, hain justu ere. Lorontzi batean gauzatzen da istorioa eta kilker baten ibilerak kontatzen ditu. Argentinarra da, Buenos Airesko portuko galaia, baina atzerrira joan beharra dauka. Bidean hainbat intsekturekin egingo du topo eta tolerantzia eta aniztasuna zer diren ikasten joango da poliki-poliki. | A.A.

Taun-Taun antzerki taldeko kide izandako Nartxi Azkargorta (42 urte) bergararra TVEko *Los Lunnis* saioan ari da lanean. *Lutecio* pertsonaia egiten du Nartxik: haren

ahotsa da, nahiz eta hasieran manipulatu ere egiten zuen. Aurretik umeendako beste saio baten ere jardundakoa da, *Barrio Sesamon*, hain zuzen. Gaur egun Sant

Esteve de Palautorderan bizi da, eta Txo Titelles antzerki taldearekin *Ale hop!* lanaren euskarazko bertsioa egin berri dute, Juan Martin Elexpururekin batera.

NARTXI AZKARGORTA | ANTZERKIGILEA

# "Marketina eta programazio zabala funtsezkoak izan dira 'Los Lunnis'-en arrakastan"

Edu Mendibil

**Zein da Los Lunnisen arrakastaren sekretua?**

Marketinak eta eguneroko programazio zabalak zerikusia izango dute horretan. *Vamos a la cama* izenburuko klipak oihartzun handia eman zion saioari, eta produkzio aldetik lan handia egin da saioa aurrera ateratzeko. **Internetetik deskargatutako musika rankingean, U2 eta Alejandro Sanzen atzetik zaudete...**

Inork ez zuen horrelakorik espero, eta albiste pozgarria izan zen, batez ere saioaren ekoizpen etxearendako. Marketinaren ondorioa izango da hori ere, eta baita hurrendako dagoen programazio eskasari esker.

**Zelakoa da Lutecio, zure pertsonaia?**

Ero samar dagoen asmatzaillea da; aplikaziorik ez duten gauzak asmatzen ditu, zerbait asmatzearen. Bere munduan zoriontsua da eta albokoei on egiten ahalegintzen da.

**Gidoietan hartzen duzu parte?**

Ez. Lehen urtean *Lutecioren* txotxongiloa manipulatzeko nuen eta orain ahotsa ematen diot bakarrik. Hasierako taldean 11 titiritero ginen; astelehenetan ahotsak grabatzen genituen eta astean zehar grabazioa egiten genuen, *play-back*ean. Orain pertsonaia berriak daude eta horrek lantaldea handitu du: 15 lagun ari gara ahotsak jartzen eta beste 23k txotxongiloak manipulatzeko dituzte.

**Antzerkiaren eta telebistaren artean alde handia dago, ala?**

Bai, sekulakoa, ez dute zerikusirik. TVE *Los Lunnis* ekoizten duen enpresa erraldoia da, eta produkzio kate horretako langile bat besterik ez naiz. Txo Titelles gure taldea, aldiz, txotxongiloen gainean ikertu eta esperimentatzen duen konpainia da. Hala, ikuskizunak sortzerakoan taldekide guztiok sormenerako bideak irekita dauzkagu.

**Zein iritzi daukazu hurrendako programazioaren gainean?**

Ez daukat egiten ari denaz erreferentzia errealik, egia esan.

Entzuten ditudan komentario-enganatik, programa jakin batzuek indarkeriazko edukiak dituzte. Azken batean, telebista gure errealitatearen ispilua da, eta munda gero eta okerrago dagoenez... **Zure haurtzarotik, zein saio gogoratzeko dituzu?**

Hainbat programatako oroitzen onak ditut: *Locomotoro*, *Los Hermanos Malasombra*, *Capitan Tan*, *Valentina*...

**Orain, heldutakoan, posible da hurren programekin gozatzea?**


Hurrendako programak Noa gure alabatxoarekin bakarrik ikusten ditut. Egia esatea nahi baduzu, nahiko aspergarriak iruditzen zaizkit. Dibertigarriena alabaren erreakzioak izaten dira, poztasuna edo tristura eragiten dioten gauzak ikustea... Telebista pantailari baino gehiago, Noaren aurpegiari erreparatzen diot nik.

**Zuen alabatxoa Los Lunnisekin oheratzen da?**

Ez, nahiz eta orduan izaten den hura oheratzeko ordua. Etxean telebista itzalita izaten dugu *Los Lunnis* ematen duten orduko...

**Eta Noak badaki aita Lutecioren atzean dagoela?**

Bai, badaki, baina ez dut uste garrantzi handia ematen dionik.



Nartxi Azkargorta *Lutecio* panpinarekin.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Azken baten, beti ikusi izan nau txotxongiloekin lanean.

**Noiz etorriko zara zuen taldearekin Euskal Herrira?**

Gogoz gaude Euskal Herrira joateko, baina ez dago gure esku. Momentuan hainbat ikuskizun ditugu esku artean, [www.txotitelles.com](http://www.txotitelles.com) gure webgunean kontsulta daitezkeenak. Nobedade gisa, *Ale hop!* ikuskizunaren euskarazko bertsioa prestatu dugu Juan Martin Elexpururen laguntzarekin.

"Vamos a la cama" klipak oihartzun handia eman zion saioari, eta produkzio aldetik lan handia egin da"

"Hurrendako programak nahiko aspergarriak dira. Dibertigarriena alabaren erreakzioak dira"

"Gure taldea, Txo Titelles, txotxongiloen gainean ikertzen duen konpainia dela esango nuke"

"Gogoz gaude gure taldearekin Euskal Herrira joateko, baina hori ez dago gure esku bakarrik"

Bertan salgai

# ASTELEHENEKO Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

<p><b>Antzuola:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Altzarte okindegia</li> <li>•Martin okindegia</li> </ul> <p><b>Elgeta:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Kioskoa</li> </ul> <p><b>Bergara:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Bolintxo okindegia</li> <li>•Ogizun okindegia</li> <li>•Konde okindegia</li> <li>•Olabe okindegia</li> <li>•Mizpildi okindegia</li> <li>•Plazako Kioskoa</li> <li>•Txurrerua Kioskoa</li> </ul> <p><b>Arrasate:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Eroski merkatal guneko prentsa txokoa</li> <li>•Balantzategi kioskoa</li> <li>•Portaloiko kioskoa</li> <li>•Usue paper denda</li> <li>•Bolintxo Okindegia</li> <li>•Maalako okindegia</li> <li>•Kurruxko okindegia</li> </ul>	<p><b>Arexabaleta:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Errasti kioskoa</li> <li>•Ibarra estankoa</li> </ul> <p><b>Eskoriatza:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Dorleta liburutegia</li> </ul> <p><b>Leintz Gatzaga:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Labidea</li> </ul> <p><b>Aramaixo:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Plazako kioskoa</li> </ul> <p><b>Oñati:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Haritza Kioskoa</li> <li>•Ibarrondo Kioskoa</li> <li>•Eskolatxo okindegia</li> <li>•Arantxa okindegia</li> <li>•Irizar okindegia</li> <li>•Ogibarri okindegia</li> <li>•Olakua okindegia</li> <li>•San Lorentzo okindegia</li> <li>•Errota okindegia</li> </ul>
--	---

## 'Gomendatzen dizut...' saria deitu dute Aste Santuko oporrei begira

*Arrasateko gazte  
bulegoak jasoko  
ditu oporretarako  
gomendioak, eta  
landetxe baten  
egonaldia zotz  
egingo du gero*

Leire Kortabarria

Aste Santuko oporretan pentsatzen hasiak dira asko, eta horietarako planak egiten dabiltzanei laguntzeko, *Gomendatzen dizut...* lehiaketa deitu du Arrasateko Gazte Informazio Bulegoak. Joan den udan deitu zuten lehenengoz lehiaketa hori, Bergarako eta Oñatiko gazte bulegoekin batera. Orduko erantzun polita ikusita —41 gomendio jaso zituzten—, bigarren edizioa antolatu dute. Oraingoan, Arrasatekoak bakarrik egingo du.

Lehiaketaren helburua da, lehenengo deialdian bezala, jendeak oporretarako gomendioak konpartitzea. Horretara,

rako, fitxa bat bete behar da, hainbat motatako informazioarekin. Herri edo hiri bat, jate-txe bat, hotel bat, monumentu bat... Izan ere, edozer gomendatu daiteke.

Aholkuok Arrasateko Gazte Informazio Bulegoan utzi behar dira, edo *gaztebulegoa@arrasatemondragon.net* helbidera bidali, apirilaren 22a baino lehen. Parte-hartzaileen artean, landetxe batean bi lagunendako asteburu bateko egonaldia zozketatuko dute.

### URTEAN BI TXANDATAN

Dorleta Kortazar Arrasateko gazte bulegoko arduradunak dioenez, "urte osoan etortzen da jende dezente informazio bila, eta horregatik, lehiaketa urtean bi txandatan egitea erabaki da". Apirilean eta irailean egingo dira zozketa horiek.

Idea Gipuzkoako beste gazte bulego batzuetan aurkeztu dute antolatzaileek, eta, hango arduradunei gustatu egin zaenez, aurki Debagoienean sortutako lehiaketa hori Gipuzkoako beste herri batzuetan ere egingo dute.

## Labur

## 'Emakumeak euskal mitologian' delako hitzaldia izango da asteen

Anuntxi Arana antropologo eta idazleak emakumeak euskal mitologian duten rolaz berbaldua egingo du. Eguenean, martxoak 3, da hitzordua Aretxabaletako udaletxe zaharrean, 19:00etan. Lora-mendi euskara elkarteak antolatzen du ekintza hori.

Aiaran sortua, Lapurdin bizi da Anuntxi Arana. Euskal mitologia da bere ikerketa arlo nagusia, eta horren gaineko zenbait liburu idatzi ditu. Mitoen eta pentsaeraren arteko harremana, mitoek herritarren bizitzan izan duten eragina... ikertu izan ditu.

## Film emanaldia eta bertso-trama antolatu ditu egunotarako Laixanek

Oñatiko Laixan elkarteak honako ekintzak deitu ditu: hilaren 3an, euskal film labur emanaldia kultura etxean, 20:00etan; eta 4an, egubakoitza, bertso trama Santa Anan, 22:30ean, Egaña, Arzallus, Lujanbio eta Peñagarikano bertsoariekin.



## Arrasateko Jukebox taldeak salgai du 'We only wanna rock' diskoa

Arrasateko Jukebox taldeak diskoa kaleratu berri du, GP Producciones diskoetxearen eskutik. *We only wanna rock* du izenburua eta kantu propioekin osatu dute. Estilo aldetik, rock-and-rolla eta punk-rocka uztartzen dituzte. Diskoa salgai dago Arrasateko hainbat tabernatan, eta, laster, disko dendetan.

Jukebox Arrasateko lau lagunek osatzen dute. Oso harrera ona izan dute beti, bai Debagoienean, baita kanpoan ere. Besteak beste, Ingalaterrako Rezillos taldearekin jo izan dute.

## Hitzorduak



## ALBERTO IÑURRATEGIEN 'GURE HIMALAIA' FILMA EMANGO DUTE

Kilometroak'05ek antolatu du, eta sarrerak salgai izango dira egunean

Alberto Iñurrategi mendizaleak egindako *Gure Himalaia* filmaren emanaldia antolatu du Kilometroak 2005ek. Egubakoitzean, hilak 4, izango da emanaldia Arrasateko Amaia antzokian, 20:00etan, eta sarrerak aldeztu aurretik erosteko aukera egongo da egunean eta egubakoitzean, hilak 3 eta 4,

antzokiko txarteldegian, 18:00etatik 20:00etara bitartean. 3 euro da.

Film horretan, aretxabaletarrak Felix anaia zenarekin batera 1990etik 1998ra bitartean egindako espedizioak biltzen ditu, ikuspuntu kritikotik. Argazkian, filmeko irudi bat.

### LEHIAKETAK |

• **Sexmetraia film labur lehiaketa antolatu dute** Sexmetraia sexualitatearen gaineko film labur lehiaketa deitu du Arrasateko Sexologia Zerbitzuak. Edozeinek parte har dezake, eta mugaeguna da ekainaren 10a. Argibide gehiagorako, jo Interneteko [www.sexologiazerbitzua.com/sxmetraia](http://www.sexologiazerbitzua.com/sxmetraia) helbidera edo deitu 943 79 80 10 telefonora. 2.400 euro banatuko dituzte saritan.

### ZINEMA |

• **Alejandro Magno filma emango dute Arrasaten** Gaur, astelehena, emango dute film hori Amaia Udal Antzokian, 20:30ean. 3 euro da.  
• **Whisky filma emango dute Bergaran gaur, astelehena** Novedades aretoan izango da emanaldia, 19:30ean.  
• **El aviador filma ikusteko aukera dago Oñatin** Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura etxean, 19:30ean. Sarrera 3 euro da.  
• **El hijo de la novia filma emango dute etzi Elgetan** Espaloia kafe antzokian emango dute film hori etzi, eguazte-ena, 21:30ean.  
• **Sólo un beso filma Bergaran, zineklubean** Novedades aretoan izango da emanaldia egunean, hilak 3, 20:00etan. 4 euro da sarrera.

• **Euskal film laburrak emango dituzte egunean Arrasaten** Eguenean, martxoak 3, izango da emanaldia Amaia antzokian, 20:30ean, eta Iñaki Beretxe zinemagilearekin berriketaldia izango da segidan. Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatzen du.

### DEIAK |

• **Koadrilen Aratusteetako argazkiak, Nahikari tabernan** Bergarako taberna horretan Aratuste zapatuan ateratako argazkiak eskatzeko aukera dago, tabernara bertara joanda edo [www.nahikari.com](http://www.nahikari.com) webgunean.  
• **Zarzuelako entseguak gaur, astelehena, hasiko dira** Arrasateko Izaskun Murgia elkarte lirikoak dei egiten die *Baserría* zarzuelan parte hartuko dutenei gaur, astelehena, hasiko diren entseguetara. 21:15ean batuko dira Arrasate Musikalen.  
• **Eskoriatzako liburutegia goizez ere zabalduko dute** Eskoriatzako liburutegia goizez ere zabalduko dute aurreantzean. Astegunetan, 10:30-13:00 eta 16:30-20:00 orduetartean zabalduko dute; zapatuetan, 10:30-13:00.  
• **Bertsoak enkarguz egiten ditu Txatxilipurdi elkarteak** Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi elkarteak bertsoak

enkarguz egiten ditu. Prezio egokia eskaintzen dute, eta 72 orduan erantzun zuzena ematen dute. Argibide gehiagorako, jo euren webgunera: [www.txatxilipurdi.com](http://www.txatxilipurdi.com).

### IKASTAROAK |

• **Bi Internet ikastaro hasiko dira Oñatiko KZGunean** *ViaMichelinekin bidaiatu* delako ikastaroa izango da bihar, martitzena, eta *Iberdrola Mikologia* izeneko egunean, hilak 3. Izena emateko, jo KZGune-ara, kultura etxean, edo deitu 943 71 83 20 zenbakira.

### MUSIKA |

• **Shotta taldearen emanaldia izango da Bergaran** Talde horrek Bergarako Jam aretoan joko du datorren egubakoitzean, martxoak 4, 22:00etan. Sarrerak salgai daude 10 eurotan. Txarteldegian erosiz gero, berriz, 12 euro kostatuko dira.

### ANTZERKIA |

• **Hainbat antzezlan egingo dituzte Kurtzebarri eskolan** Antzerki Astea egiten ari dira Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan, eta gaurtik etzira bitartean, hainbat emanaldi egingo dituzte ikasleek: 15:00etan, ikaskideendako, eta 18:00etan, guraso eta herritarrendako.

Zorion agurrak



ARRASATE  
**Maialen Etxabe**  
Otsailaren 26an, 10 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.



BERGARA  
**Ander Kerexeta**  
Otsailaren 26an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE  
**Eider Garro**  
Otsailaren 29an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Martxel Belategi**  
Otsailaren 27an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Olatz Rementería**  
Otsailaren 27an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Aitor Lopez de Lacalle Rementería**  
Otsailaren 27an, 2 urte. Zorionak! Etxekoak.



BERGARA  
**Eider Sasiain**  
Otsailaren 27an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA  
**Mikel Edroso**  
Otsailaren 28an, 8 urte. Zorionak! Gurasoak eta Maria arreba.



BERGARA  
**Ayala Sasieta**  
Martxoaren 3an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Unai Calleja**  
Martxoaren 3an, 29 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Eukén Azpeitia**  
Martxoaren 4an, 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Izar Morillas**  
Martxoaren 5ean, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Nere Zurro**  
Martxoaren 6an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



OÑATI  
**Anabel Diez**  
Otsailaren 25ean. Urte askotarako! Aretxabaletako lagunak.



ARETXABALETA  
**Iñigo Arkauz**  
Otsailaren 27an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat. Etxekoak.



ARETXABALETA  
**Eneko L. Armentia**  
Martxoaren 5ean, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ESKORITATZA  
**Angel San Migel**  
Otsailaren 28an, 45 urte. Zorionak! Aretxabaletako lagunak.



ELGETA  
**Mikel Canelo**  
Martxoaren 1ean, 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta batez ere Nerea.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!  
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederra!

ARGAZKIA\* EMATEKO LEKUAK:  
**Arrasate:** Otarora Lizientziaduna 31 • **Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33  
**Aretxabaleta:** Durana 11 2. solairua  
**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-Baltxongua

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra kaleratu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

sms mezuzak

- Aupa txoriburu. Zr mduz amaitu ginuan zptuan? Zelako mxuak emotn ditxu rubioak?
- Jeremias, kokoteraino naukazu! Lagatzeko pake santuan! Eztotela zurekin ezer nahi!
- Neska gaui batzuk gara eta mutil jator eta majoekin koadrilan atera nahi dogu. Interesatuek idatzi hemen eta guai berba erabili klabe modura. Oso majak gara!



## Baita SMS bidez ere!

Bidali mezua:  
**gnkzorion [laga tartea] [mezua] 7744 zenbakira.**

Hurrengo Asteleheneko Goienkaria-n irakurri ahal izango du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa

Hildakoak

**Manuel Mira Garridos**  
Bergaran, otsailaren 25ean. 59 urte.



**ESKELAK**  
ASTELEHENEKO  
GOIENKARIAN

82 euro  
**943 76 92 71**

Jaiotakoak



**Naroa Fernandez de Arroioabe Sanchez**  
Aretxabaleta • 2,980 Kg. Otsailak 21. Gurasoak: Javier (Eskoriatza) eta Emi (Aretxabaleta).



**Uxue Gallastegi Elorriaga**  
Elgeta • 3,300 Kg. Otsailak 22. Gurasoak: Bittor eta Eneida (Elgeta). Argazkian: Uxue amaren besoetan bapto lo.



**Lander eta Garazi Agirre Oxinaga**  
Arrasate • 2,600 eta 2,400 Kg. Otsailak 23. Gurasoak: Iker eta Ruth (Arrasate). Argazkian: Saul osabarekin.



**Aimar Gomez Martins**  
Arrasate • 3,250 Kg. Otsailak 23. Gurasoak: Jaime (Arrasate) eta Elena (Arrasate). Argazkian: Aimar amaren besoetan.



**Manex Gereñu Etxezarreta**  
Oñati • 3,560 Kg. Otsailak 25. Gurasoak: Xatur (Brinkola) eta Rosa Mari (Oñati). Maixabel izebarekin.



**Markel Mancebo Terrazas**  
Arrasate • 2,960 Kg. Otsailak 26. Gurasoak: Celestino eta Amaia (Arrasate). Argazkian: Markel amaren besoetan.



# MERKEALDIA AZKEN ERREMATEA

KIROL-MODAN, OINETAKOETAN, ARROPËTAN;  
MENDI, IGERIKETA ETA AEROBIC-EKO ARTIKULUETAN;  
KANTXAKO KIROLETAN, OSAGARRIETAN, ETAB.

**0% 50** **ERAINO**

**MARTXOAREN 6RA ARTE**

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

SPORTLAND ARRASATE Garibai Etorbidea, 2-6

KIROLA ZEURE ESKURA

**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

**Aita Santuaren osasun egoera berbagai**

Irratia Vatikanora joango da. Vatikanon Irratiko albistegietako arduradun Inazio Arregirekin berba egingo dute. Aita Santuaren osasun egoera, eta estatu horren etorkizuna zelan ikusten duten aztertuko dute. Horrez gain, Aitor Arregi zinemagilearekin Oscarrak izango dituzte berbagai.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:00

**Kultura etxearen gaineko erreportajea egingo dute**

Oñatiko Irratiko kazetariak kultura etxearen gaineko erreportajea egingo du. Kultura etxeak 2 urte bete ditu eraberritu zutenetik eta gero eta erabilera handiagoa du. Kultura teknikari German Meabasterretxea irradian izango da.

**Loiola Irratia**

FM 99.8

'Muxutruk' | 11:00

**Eguneko albisteei gainbegiratu sakona**

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

**Berdintasunaren legearen gaineko mahai-ingurua**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Bulevar' | 11:10

**Gorka Knörri elkarrizketa egingo diote**

**Gaur telebistan**

**GOITB**



**Joxe Arantzabal, gonbidatu 'Ilunpean'-en**

**14:30** Joxe Arantzabalek minbiziaren eta beste gai batzuen gainean berba egingo du *Ilunpean* saioan.

**13:45** Emisio hasiera. **13:50** Marrakizki bizidunak. *Fernando Amezketarra*.

**14:10** Marrakizki bizidunak. *Lazkao Txiki*.

**14:15** *Berriak*. Gorka Etxabek gidatutako albistegia.

**14:30** *Ilunpean*. Joxe Aranzabali elkarrizketa zabalera zion Oihana Elortzak. Arantzabalek aurkeztu duen *Medikuak esan dit minbizi dudala* liburua izan zuten berbagai, besteak beste.

**15:00** *Gure lanbide zaharrak*.

**15:30** *Berriak*. Errepublikapena.

**15:45** *Klip@*. Musika taldeen bideoklipak.

**19:30** Emisio hasiera. **19:35** *Gaurkoak*.

**19:45** *Klip@*.

**20:00** *Berriak*. Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia.

**20:30** Marrakizki bizidunak.

**21:00** *Harmailatik*. Aitor Elkoro izango da gonbidatua.

**21:30** *Auñamendiak*. Laino zakarra Auñamendian.

**22:00** *Albistegia*.

**22:30** *Harmailatik*.

**23:00** *Auñamendiak*.

**23:30** *Gaurkoak*.

**23:45** Emisio amaiera.

**ETB 1**



**Erreportaje umoretsuak 'Ze kosmopolita'-n**

**22:20** Aintzane Gamiz eta Iñaki Beraetxek aurkezten duten *Ze kosmopolita* saioan, erreportaje umoretsuak.

**07:00** Tik-Tak circus.

**07:30** Betizu. *Doug, Hartz txiki, Doremiren magia, Sorgin asper-tua eta Euli ipuinak*.

**09:05** E-klipse@.

**09:30** Elkartasunaren bideak.

**10:00** Amama sukaldari.

**10:10** Bidaide.

**12:00** Bertatik bertara.

**12:30** Hitzetik hortzera.

**13:10** Barne barnetik. *Olazagutia-Olazti*.

**13:35** Betizu. *Bizargorri*.

**14:00** Gaur egun 1.

**14:40** Postdata.

**14:45** Eguraldia.

**14:50** Hasiberriak. *Home, sweet home*.

**15:20** Bidaide.

**17:00** Sustraiak.

**17:35** E-klipse@.

**18:00** Iparraldearen orena.

**18:05** Betizu. *Beeke-rekeak, Garfield eta lagunak, Doraemon, Zuzen eta Shin Chan*.

**20:20** Eguraldia.

**20:28** Gaur egun.

**21:05** Bertatik bertara.

**21:40** Goenkale.

**22:20** Ze kosmopolita.

**23:25** Ero eta bero.

**00:15** Teknopolis.

**00:45** Eguna iruditzen.

**00:50** Kar kar kluba.

**ETB 2**



**'El conquistador del fin del mundo' saioa**

**21:55** Iantzik aurkezten duen *El conquistador del fin del mundo* saioan lehiakideek proba gogorrrak egiten dituzte.

**07:35** Rutas de solidaridad. *Bolivia III*.

**08:05** Embrujada.

**09:00** Forum. David Barberok Jorge Edwards idazlea elkarrizketatuko du.

**09:30** El punto. Juan Luis Bikuñarekin.

**10:20** Cosas de casa. *El marcador de Polk High* eta *En busca del oso*.

**11:10** Stargate. *Medidas desesperadas*.

**12:15** Se ha escrito un crimen. *Asesinato en clave menor*.

**13:55** Date el bote. Carlos Soberarekin.

**14:58** Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.

**15:55** Eguraldia. Ana Urrutiarekin.

**16:00** Pasalo. Adela Gonzalez eta Iñaki Lopezekin.

**18:25** Siempre cine. Zehaztu bariko filma.

**20:10** Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.

**20:58** Teleberri 2. Julio Ibarrearekin.

**21:50** Eguraldia.

**21:55** El conquistador del fin del mundo.

**00:05** El día en imágenes.

**00:10** El divan de Julian.

**00:05** La zona muerta. *El enigma*.

**02:50** Esta es mi gente.

**TVE 1**



**Drama eta umorea 'Ana y los siete'-n**

**22:00** Ana Obregon protagonista da *Ana y los siete* telesailan, eta umorea eta drama uztartzen dituzte bertan.

**06:00** Canal 24 horas.

**07:00** Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin.

**09:00** Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin.

**10:15** Saber vivir.

**11:15** Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.

**14:00** Informativo territorial.

**14:30** Corazón de invierno. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.

**15:00** Telediario 1.

**15:55** El tiempo.

**16:00** Obsesión. Tele-saila.

**17:00** Te voy a enseñar a querer.

**18:00** Smalville. *Abandonada*.

**19:15** Esto es vida.

**20:00** Gente.

**21:00** Telediario 2.

**21:55** El tiempo.

**22:00** Ana y los siete. *Vienen a por María*.

**23:30** 59 segundos. Errepublikapena.

**23:40** 59 segundos. Elkarrizketa eta erreportajeen saioa.

**01:30** Telediario 3.

**02:00** Deporte.es.

**02:30** Los siete magníficos.

**03:30** Canal 24 horas.

**La 2**



**'Saber y ganar', Jordi Hurtadok aurkeztuta**

**15:15** Jordi Hurtadok aurkeztebeteranoak gidatzen du *Saber y ganar* lehiaketa. Kulturaren gaineko da.

**07:30** Los Lunnis. *Meme y el señor Bobo, Aventuras en pañales* eta *Tweenies*.

**09:30** Aquí hay trabajo.

**10:00** TV educativa: La aventura del saber.

**11:00** La botica de la abuela.

**11:15** España.es. Mon Santisorekin.

**13:00** Los Lunnis. *Digimon, Artur, Los Lunnis* eta *Los mini-monstruos*.

**15:15** Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin.

**15:45** Grandes documentales. *Andalucía entre el infierno y paraíso*.

**16:55** Frontera límite.

**17:30** Los Lunnis. *Pato Bill, Los Lunnis* eta *Mundo perdido*.

**19:30** Pueblo de Dios. *Liberia: la paz está cerca*.

**20:00** Informativo territorial.

**20:30** Gala del deporte. Zuzenean, Avilestik.

**22:00** La 2. Noticias.

**22:30** El tiempo.

**21:30** Miradas. 2.

**22:35** En portada. *Mali*.

**23:30** Extravagario.

**00:30** Metropolis. Alina Iraizozekin.

**01:00** Los conciertos de Radio 3.

**01:30** A ciencia cierta.

**Antena 3**



**'El hombre de la máscara de hierro' filma**

**21:45** *El pelucón* programaren barruan, Di Caprio, Jeremy Irons eta Malkovichek esku hartu duten filma.

**06:00** Las noticias de la mañana.

**09:00** Ruedo ibérico. Montserrat Dominguezek aurkeztutako goizetako saioa.

**10:45** Cada día. Maria Teresa Campos esatari ezagunak aurkeztutako saioa. Elkarrizketak, tertuliak eta lehiaketak egiten dituzte.

**14:30** Los Simpson. *La culpa es de Lisa*.

**15:00** Noticias 1.

**15:45** La vida es rosa.

**17:00** Aventura en Africa. Lehiaketa horren eguneko laburpena.

**18:00** Números locos.

**19:00** El diario de Patricia. Herritarren testimonio bitxiez osatutako programa. Patricia Gaztañagarekin.

**20:15** Pasapalabra. Lehiaketa. Gonbidatuak: Poli Rincon, Emilio Oliva, Arantxa Bonete eta Kira Miro.

**21:00** Noticias 2.

**21:45** *El hombre de la máscara de hierro*. Abentura filma. Zuzendaria: Randall Wallace. Protagonistak: Leonardo Di Caprio, Jeremy Irons eta John Malkovich, besteak beste.

**00:45** 7 días, 7 noches.

**02:00** Noticias 3.

**02:20** Televienta.

**05:00** Repeticiones.

**Tele 5**



**Eztabaida handia 'Crónicas Marcianas'-en**

**00:00** Javier Sardak aurkezten duen gaueko programa horretan eztabaida eta nahaspila ez dira inoiz falta.

**06:30** Informativos Telecinco matinal.

**09:10** La mirada crítica. Vicente Vallesek.

**10:45** El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute.

**14:30** Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparrorekin.

**15:30** Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcaidearekin.

**16:30** Gran hermano VIP. Laburpena.

**17:30** A tulado. Emma Garcia eta Felix Alvarezekin.

**19:35** Alla tú. Jesus Vazquezekin.

**20:30** Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustín Hernández.

**21:30** Pecado original.

**22:00** C.S.I. Las Vegas. *No des nada por seguro*.

**23:00** C.S.I. Miami. *Indicios de cosas invisibles*.

**00:00** Crónicas marcianas.

**02:20** Informativos Telecinco.

**02:45** Madrugada de cine. *Equipo rojo*. Intrigazkoa.

**Astean GOITBn**

Astelehena, 28



'Albistegia' | 20:00

**Asteburuak eta astelehenak eman dutena**

Deiane Arrieta kazetariak aurkeztutako saioan, asteburuak eman dituen eta astelehenak emango dituen albiste garrantzitsuenak gainbegiratu dituzte.

Martitzena, 1



'Debarri' | 21:00, 22:30

**Eskoriatza berbagai izango du alkateak**

Astebeteko atzerapenarekin Eskoriatzako alkate Juan Karlos Bengoa *Debarri* saioan izango da. Bengoak eta Alberto Gorritibereak Eskoriatzaren gainean berba egingo dute.

Eguaztena, 2



'Danbaka bira' | 21:30, 23:15

**Azkaiter Pelox bakarleriaren kontzertua**

Bergarako Azkaiter Pelox bakarleriaren kontzertua egin zuen Elgetako Espaloian, kilometroen alde. Besteak beste, The Who eta Bap! taldeen kantuak jo zituen.

Eguena, 3



'Auñamendiak' | 21:30, 23:00

**Auñamendi mendia zeharkatuko dute**

Otsailaren 28a: 033 zozketa

## Harpidedunen txokoa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 28, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

### BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

**Harpidetza kuota, 35 euro**

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek izan dira aurreko egubakoitzean argitaratu genituen sarien irabazleak.

**Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!**

Korrika Kulturalaren barruan martxoaren 4an, Oñatiko Santa Ana antzokian izango den BERTSO-TRAMArako (Elortza, Lujanbio, Egaña eta Arzallus) hiru gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).

- Vicente Madina Zabaleta (Oñati)
- Gaizka Etxaniz Aranguren (Antzuola)
- Jose Mari Arenaza Garitano (Bergara)

Eibar-Elch futbol partidurako lau gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).

- Beñat Negueruela Elorza (Oñati)
- Pedro Mari Eskibel Larrañaga (Eskoriatza)
- Andoni Narbaiza Ibarzabal (Bergara)
- Aintzane Agirre Urzelai (Oñati)

Martxoaren 4an, Elgetako Espaloia Kafe antzokian izango den FERNANDO SAUNDERS-en (Lou Reed taldeko baxu jotzailea) kontzertua ikusteko bi gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).


- Maria Asun Urzelai (Oñati)
- Jose Mari Urzelai Albizu (Bergara)

Juan Martin Elexpururen BERGARA ALDEKO HIZTEGIA. Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat.

- Elena Kareaga Garcia (Bergara)
- Edurne Agiriano Altuna (Oñati)

### Martxoak 7ko sariak


- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).



Juan Martin Elexpururen  
**BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**

Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osatuta.

Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat.





## Hamarrekoa

IÑAKI AGIRIANO | ESKUALDE OSPITALEKO LARRIALDIETAKO ARDURADUNA

### "Hilero 20 bat bikote etortzen dira preserbatiboa apurtu egin zaiela esanez"

Maria Agirre

**1. Joxe Arantzabalek liburua idatzi du minbiziaren inguruan. Zer iruditzen zaizu?**  
Berba egitea ona da, eta idaztea, garrantzitsua. Nik neuk ere nire kezka eta gogoeten inguruan idazteko ohitura dut.

**2. Larrialdietan lan egiten duzuenok oso estresatuta bukatzen duzue?**  
Batzuetan. Larrialdi egoeretan estresatzen gara, baina batez ere, itxarongela beteta dagoela ikusteak estresatzen gaitu.

**3. Makina bat urte darrazazu larrialdietan. Istripuetara ohitu zara?**  
Inoiz ez zara istripuek eragindako larrialdietara ohitzen, baina gauza bat da ez ohitzea, eta beste bat gauzak ondo egiten jakitea. Gazte bat larri zaurituta iritsi, eta hil egiten bada, gaizki pasatzen da. Baina azkenean, une horiek ahaztu egin behar dituzu, bestela...

**4. Baina izango duzu ahaztu ez duzun uneren bat.**  
Duela urte asko atentatua izan zen Aretxabaletan, eta hiru guardia zibil ekarri zituzten zaurituta. Une gogo-

rrak izan ziren, guardia zibil mordoa etorri baitzen.

**5. Sexu harremanek eragindako larrialdiak ere izango dira.**  
Asko. Hilero 20 bat bikote etortzen dira preserbatiboa apurtu egin zaiela esanez. Nik tonto aurpegia ote dudan galdetzen diet, kondoia apurtzea benetan zaila baita. Ondoren, egia esaten dizute: sexu harremana izan zuten unean, ez zutela neurririk hartu.

**6. Larrialdiekin lotura izaten duten telesailak ikusten dituzu?**  
Inoiz bai, eta orokorrean puztuegiak daudela uste dut. Baina larrialdi zerbitzuek beti izan dute morboa.

**7. Nikaraguan heriotza beste era batean barnerrateko dute.**  
Nikaraguako baten iritzi, heriotza zerbait naturala da. Hemen, berriz, sekulako beldurra diogu.

**8. Eta gaixotasunak ere desberdinak.**  
Hemen go eta hango gaixoez ez dute zerikusirik, eta gaixotasunak ere ez. Duela 40 urte hemen zeuden gaixotasunak bizi dituzte egun Nikaraguan.



AITOR LIZARRALDE

Bergararra jaiotzez, baina Arrasaten bizi da Iñaki Agiriano. Duela 23 urte hasi zen Eskualde Ospitaleko larrialdietan lanean, eta egun arduraduna da. Larrialdiez eta Nikaraguaz jardun dugu. Oporrak dituenean, Nikaraguara joaten da, laquntzera. AMSO-GRA elkarteke lehendakaria da Iñaki, eta Granada hiritik gertu bizi diren nekazariari osasun arloko laquntza ematen ari da.

**9. Gaur egun buruko gaixotasunak gero eta ugariagoak dira.**  
Hala da. Gaur egun, depresio, estres eta antsietate kasu gero eta gehiago ikusten dugu. Gizarteak ekarri dizkigun arazoak dira.

**10. Zu zeu medikuarengana joaten zara?**  
Egia esaten badizut, ez naiz joaten. Joanez gero, seguru zerbait aurkitzen didala... Gehienetan nik neuk zaintzen dut nire burua.



### Biharamuna

Edu Mendibil

## Moskutik Elorriora

Bergaran ez dago giro handirik aspaldian. Horrez gain, ur kolektoreko lanak direla-eta, kalean ibiltzea ez da erraza; Fraiskozuri eta Ibargarai aldean hobe katiuskak jantzia ibiltzea. Eta dendariak, haserre. Normala. Martxa honetan, **Paris-Dakar** rallyak geldialdia egingo du Bergaran hurrengoan.

**Migala** taldeak Elorrioren jotzen zuen zapatuan, eta hara jo guten. **Arriola** aretoan programazio interesgarria izaten dute urte osoan. Elorrioren bizi da **Joxe Arantzabal**, eta hari deitzeko tentazioa izan nuen, zoriontzeko, gainditu duena gaintzeagatik eta eman digun lezioagatik. Zenbaitetan, medikuek, botikak behar-rean, hobe lukete Joxeren moduko liburuak errezetatzea.

Kontzertu elegantea izan zen Migalarena. Euren abestietako baten izenburua ona da benetan: *Lecciones de vuelo con Mathias Rust*. Akordatzen zarete **Mathiasekin**? 1980ko hamarkadaren erdialdean bere hegazkin txikiarekin Moskuko Plaza Gorrian lurreratu eta gero ospetsu egin zen, Sobiet Batasuneko defentsa-sistema hankaz gora jarri zuelako. Ez dakit gaur egun pilotu komertziala izango den Mathias, ala *Gulag*-era bidali zuten.

Edozein modutan, zapatuan Euskal Herriko zerua zeharkatu izan balu manifestazio jendetsua ikusiko zuen Mathiasekin Bilbon. Eta pilotuekin jarraituz, **DiCapriok** izango du eskuartean Oscarra? **Imelda Staunton** ere merezi du, *Vera Drake* filmean lan zoragarria egiten du-eta.

**Kalitatezko**  
**Janari eta Sagardoa !!**  
Ohitura arte bihurtzen dugu  
Iparragirre Sagardotegian

Osiñaga auzoa/Hernani 943 55 03 28  
Eguaztenetik zapatura gauzez zabalik, zapatu eguerditan ere bai